

## Luzetu Barik, Igorreko Film Laburren Lehiaketea martxan

13. orrialdea

## Pankreas antzezlanaren Igorren

Zemendiaren 29an, zortziretan, *Pankreas* antzezlanaren egongo da Igorren. Uda-goieneko Osteraren barruan Euskaltzaleen Topaguneak antolatu dau emonaldia. Aurten lehenengo aldiz, zirkuituan izango diran sortzaileak solasaldiak egongo dira. Holan, zemendiaren 27an, goizeko 10:00etan Patxo Telleria antzezlanaren egilea Batxillergoko ikasleak egongo da Lasarte Aretoan. **13. orrialdea**



## Hainbat ekintza Lemoako kirol astean hilaren 17tik 23ra

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 218

2014ko zemendiaren 17a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## 50 urte Arratiako tranbia barik

1964ko zemendiaren 29an egin eban bere atzen biajea Arratiako tranbiak.

**G**arriobide bat baino gehiago, Arratiako ikono bat izan zan. "Tranbia ekologikoa eta isila zan, baina batez be ezinbesteko erreferentia erabili behar izaten eban lagunentzat" dino Jon Uru-turto historialariak fetxa hau gogoratzeke egin dauan erreportajea.

Erreportaje honetan, tranbiaren historiari errepaso egiteaz gainera, tranbiaren desagerearen arrazoiak be emoten ditu.

Bidaiariak eta merkantziak garraiatzen ebazan tranbiak eta arratiar askok Arratiatik kanpoko

fabriketara beharrera joateko erabilten eban. "1929an, 4.196.460 persona eta 89.287 tonelada merkantzia garraitu ebazan. Kontuan izan behar da linean hainbat lantegitara sartzeako bazterbideak egozala: Barbier-era, Abusun; Santa Anara, Boluetan; Basconiara, Basaurin; Firestonera, Urbin; Elpidio Bartolomera, Cementos Lemonara, eta La Flechara, Lemoan, eta abar".

Hain famadu egin zan Nodo albistegian be agertu zala eta irudiak Estadu osoko zinematari ikusi zirala. **8. eta 9. orrialdeak**



Arratiako tranbia Igorren.

Argazkia: Pedro Ureta.

### ARRATIA

## Martxa Morea eta beste ekitaldi asko zemendiaren 25aren inguruan



Hilaren 23an izango da Martxa Morea. Arratiako hainbat herritan hasi eta Areatzan amaituko da andrak jasaten daben biolentziagaz amaituteko helburua daukan martxa hau. Igorreko Kultur Etxe parean konzentrazioa egongo da 25ean eta Beldur Bank sari banaketea Bedian, hilaren 28an, beste ekitaldi askoren artean. **5. orrialdea**

### ZEANURI

## Udalbatzak ez dau onartu harrobiaren inguruko galdeketea

Zemendiaren 4ko udalbatzan ez zan onartu Udalak Xorokil inguruan herri konsultea egitea. Onartuteko aldeko 5 boto behar ziran eta Bil-duko 4 botoak izan ebazan alde. EAJ-PNV galdeketearen kontra agertu zan, esanez proiektuak legea beteten badau, udalak ezin daua ustiatzea galarazo. Konsultea egiteko eskaerea, 320 sinaduragaz erregistrau zan, Zeanuriko erroldaren % 30 inguru. **5. orrialdea**

### ARRATIA

## Lanbidek Enplegu Zentro bat zabaldu dau Artean

Arratiako Udalen Mankomunidadeak eta Lanbidek Arratia eskualdeko lehenengo zentroa ipini dabe martxan. Arteko Kultur Etxean dago eta bertan, langabeak orientazioa, arreta personalizaua eta formazioa jasoko dabe. Barikuetan dago zabalik 08:30etik 14:30era.

Helburua "beharra topetan eraginkorak izatea" dala esan eban Josune Gorospe Mankomunidadeko presidenteak zentroaren aurkezpenen. **7. orrialdea**

**UDA GOIENENKO OSTERA**

PANKREAS GAUR EGUNGO TRAGIKOMEDIA, BERTSOZ PARATUA  
AZAROAK 29 IGORRE

ANTOLATZILEA: EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA  
BARRILEA: BFA DFB  
LAGUNTZAIKAK: berria, GARA, Dela, TOKIKOM, GOIENENKO, 10770



## ARRATIA ZURI-BALTZEAN

TIMOTEO ATUTXA  
PETRALANDA (II)

Guda aurrera joan ahala, Atutxa-Solatxi familiak be ebakuazinoari ekin eutsan eta beharrezkoa hartu eta Bilborako bidea hartu eban beste hainbat familiak egin bezala. Bertan emon ebazan gudaren atzenengo hilabeteak. Bertan aurre egin behar izan eutsien goseari, errazionamentuari eta bonbardaketa etenbakoai eta bertatik entzun ebezan be bagilaren 19an frankistak Bilbora sartu ziranekeo kantu eta ereserkiak. Guda amaituta egoan eta

batzuk erbestera joateko ebatzia hartu eben bitartean, Atutxa-Solatxitarrek Igorrera bueltetea ebatzi eben.

Baina Igorrera bueltau eta egun gitxira, Guardia Zibilak bertako erreketek eta falangisten laguntzeagaz Timoteo Atutxa atxilotu eban eta Dimako kuarteltxora eroan bertan lehenengo galdeketea egiteko. Orduan hasi zan Atutxa-Solatxitarren sufrikarioa. Diman egun gitxi batzuk emon ostean Bilboko Karmeloko kartzelara eroan eben eta hortik Larriagako espetxera. Bertan emon ebazan Atutxak bere bizitzearen atzenengo hiru hilabeteak eta

sasoi horretakoak dira guri heldu jakuzan hainbat idatzi. Garagarrilean atxilotu, abuztuan epaitu eta egun berean heriotza zigorrera kondenau "rojo-separatista" akuzazinoan. Hau guztia ezelango bermerik daukan prozesu juridiko frankista arbitrario baten barruan. Timoteo bere aldetik, zigorra kommutetan saiatu zan atzen momentura arte eta hil eben aste berean oraindino errebisinoan onartuko eutsielakoan egoan. Andrek, Julianak, be bere eskuetan egoan guztia egin eban senarra salbetako. Baina alperrik, Timoteo Atutxa Petralanda 1937ko urri bigarrenaren 29an hil eben

goizeko 07:30ean. Igorren sei seme-alaba itxi ebazan eta Juliana alargun ezelango errekurso ekonomiko barik. Bereak eta bi ikusi ebazan andra honek bere bizia eta seme-alabena aurrera aterateko. Juliana be gazte hil zan, 54 urte ebazala, tristeziaren tristeziak, aurrera egiteko indarrak barik.

Errepresinoaren biktima zuzenak izan ziran Atutxa-Solatxitarrek. Urte lar pasau dira persona honeen lanaz oharu eta euren irudiak omentzen hasi garan arte. Memoria bizirik mantentzen behar dogu eta egia mahai gainean jarri herri honetan gertatutakoak inor be ez ahazteko, Timoteo Atutxa



eta beste hainbat eta hainbat biktima gogoan izateko.

**Oiane Valero Belasko**

## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**  
**Zemendiaren 17tik 23ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

**Zemendiaren 24tik 30era**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

**Abenduaren 1etik 7ra**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265****Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau

Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau

Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tiradea:** 6.800 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

**Babesleak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



## ZEURE BERBEA

### Herriari ala alderdiari, nori egin kasu?

Karta honen bidez, Xorokilgo harrobiaren proiektu barriaren inguruan pasau diranak errepasau eta herri-tarrai eretxia sortuteko informazioa emotea daukagu helburu. Izan be eristen deusagu atzen aldi honetan gauza larriak pasau dirala.

Uda honen bezperetan, herriar batzuk enterau ziran udaleko tabloian irakurrita Xorokilgo harrobiaren proiektu barria martxan ipinteko enpresa batek eskaria sartu ebala Udalean. Galapan alegazioak batu-teko beharrari ekin geuntsan eta bide batez proiektu barriaren inguruko informazioa zabalduz. Herriar asko eta askori sorpresa arpegiak ikusten jakozan, eta ia gehienak ez ekien ezer proiektu honen inguruan.

600 alegazio baina gehiago lortu genduzan proiektuaren kontra, nabarmendutekoak izan ziran gainera alkarte desbardinak be parte hartu ebela: E hiztariak, ganaderuak, etxe rural eta hoteletakoak... Halangoa izan zan sorpresea hurrengo pausua herri konsulta bat eskatutea pentsau genduala, eta harrobiaren kontra antolatuten hasi ginan herriarrek. Holan herria be informauta egongo zala eta bakotzak bere eretxia eraturteko aukerea eukiko ebala pentsau genduan.

Eta holan egin genduan; 320 sinadura batu eta urri lehenengoan udalarean erregistratu, gero udalak

ebatzi beharko eban zer eta noz pre-guntau. Firmak Zeanuriko eroldaren herriarren % 30 baino gehiago dira, gainera sensibilitate guztietako firmak batu genduzan. Bitarte horretan gainera, beste aportazio garrantzitsu bat heldu zan, Gorbeialde Landa Garapen Alkartearena, esanez kanterreak kalteak baino ez dauzala ekariko.

Sinadurak erregistratuz batera udalbatza guztiagaz batzar bat eskatu genduan. Alkatearen aldetik 2 astetako ezezkoaren ostean lortu genduan beragaz bildutea. Ez alde ez kontra esan euskun, berari "goitik" etorten jakola gai horren inguruan euki beharreko jarkerea. Handik 2 astetara Zeanuriko EAJ bere eretxia emoteko batzar zabala deitu eban eta geu be entzuteru hurbildu ginan.

Lau izan ziran bota ebazan aportazio nagusiak:

1. EAJ ez dagoala ez kanterearen alde ez kontra.

2. Proiektuak legea beteten badau ezingo dauala udalak kanterea egitea galarazo.

3. EAJ ez dagoala herri konsultea egitearen alde, izan be herriak kanterea ez dauala gura badino ia orduan zer egingo dauan alkateak proiektua egin dauan enpresek legea beteten badau.

4. Udalak kanterearen inguruan pregtutetea prebarikazioa dala.

Eta hemen arrazoi horren aurrean esateko daukaguna:

1. Esan dauana esan leiteke eta guk errespetetan dogu, baina afirmazio horri eristen deusagu adarra jotea dala. Eurak aitortu eban moduan EAJk berak bakarrik onartu eban kanterea 3 hektare-

atetik 34 hektareatara pasetako arau ordezkoren aldaketea. Holango ebatzi batek argi ixten dau kanterearen alde dagozala. Beste gauza bat da oin horren alde botoa emon eban askok kanterea ez dabela gura dinoela.

2. Horretan arrazoi guztia daukie. Baina herriak eskatzen badeutsa, zergaitik ez dauz topetan akatsak proiektuan, asko dirala, eta paralizaziora eroan Ubideko udalak atzenengo suspensioagaz egin eban moduan? Zeanuriko Udalak ez dauka "errekursorik" honetarako, baina Ubidekoak bai?

3. Hortxe daukie ebatzi nagusia. Zergaitik ez dabe herriak era legal baten eskatuten dauana egiten? "Goitik" datozen ebatziak ezin dira ikutu ala?

4. Batzar horretan eurek aitortu eban hori ez zala egia. Onartu eban kontsultea organizatu leikiela, legezko pregtutea egiten bada; eta pregtutea Udal Gobemurak ebatzi behar dau. Eskarian agertzen zan galderea proposamena zala behin eta barriro esan jakien, eta plenoan idazkariak adierazo eban nahiz eta galderea proposamena izan, eskaerea eta galderea legalak zirala.

Batzar horretatik atera zan gauzarik eta onena "debate publiko bat" egiteko prest egozala izan zan. Proposamena entregatu genduan udalarean, konsultea baino lehenago egitea eskatu genduan, holan persona bakotzak alde bietako informazioa eukiteko.

Zeanuriko auzoetan batzarrik organizatu zituen PNVk eta barriro guzurretan segiduten eban, prebarikazioan jausiko zirala eta ezin dabela konsultarik egin. Hau gitxi ez bada, pasa dan asteko plenoan PNVk herri konsulteari kontra botau eban, barriro be "prebarikazioa" aitatu.

Orduan zeanuritarren % 30ek, sensibilitate guztietako jentek eskatu eban konsultea ez dau antolatuko udalak. Ikusteko dago debate publikoa egingo dan.

Amaituteko eskari bat: gure herrian horrenbeste eragingo dauan proiektu baten inguruan ebatzi behar da eta bi aukera dagoz: "goitik" datorrena atoan eta txarto egin, edo guretzat logikoena, herriak daukan eretxia entzun eta horren defentsan urten. Arduraz jokatu daigun mesedez.

XOROKIL HARROBIARI EZ HERRI PLATAFORMEA

## ERETXIA



### MIREN URRESTI

Arratiako Udalen Mankomunidadeko Bardintasun Teknikaria

### Zer ete da gizon izatea...

Galdetu deusazue sekula zeuen buruari zer dan gizon izatea, zer andra izatea? Itauna egiten danean, hasieran, nahastea sortzean jaku. Zein itaun jenero da hori? Galdetu beharra be! Gizon ala andra zara, eta listo, ez dago buelta gehiago emon beharrik, holan da, berez gara, jaiotzaz, biologiaz.

Hain zuzen be, andrak berez ei dira, esaterako, sentiberak, bildurtiak, lasaiak, alaiak, kariñosak, enpatikak, ulerkorak, zaintzaleak, dotoreak. Ostera, gizonak, antza, berez dira ausartak, aktiboak, autonomoak, agresiboak, arriskua gustuko dabenak.

Aitatutako sailkapena, jarri jerarkia baten barruan, goian gizon izateari lotutako ezaugarriak eta behean andrazkoari lotutakoak kokatu, eta, hor, genero sistemaa dogu bete-bete, indartsu, gizarrean andra eta gizonen arteko desbardintasuna sortuten, mantenduten, errepitiduten, mundu zabalean.

Sano ondo etorten jako genero sistemeari androk eta gizonok berez izatea garan modukoak, holakoak berez bagara, ezin geinkelako aldatu, ezin dalako ezer egin, zer egingo deusagu, ba!

Bigarren itauna. Berez gara era batekoak ala era bateko egiten gaitue? Garana izaten itxiten gaitue ala zorrotz bete behar doguz gure gain jarritako aginduak? Agindu bardinak jasoten doguz neska ala mutil garala esan os-

tean? Berezko gitxi eta agindu ugari; sistema sano zorrotza da, dikotomikoa, bitarra. Halan, aldaketak eta aniztasuna zigortu egiten dauz, horretarako indarkeria erabiliz, indarkeria matxistea.

Sarritan, desbardintasun egoerak ikertukeran, genero sistematan txartoen dagozanak azpimarratu eta aztertzen dira: andrazkoak. Emoten dau desbardintasuna andrazkoen arazoa dala, bardintasunari lotutako gaiak andren gaiak dirala. Kasualitatea?

Erosoa da jerarkiaren goikaldetan egotea, pribilegio ugari izatea, zergaitik eta gizonazko izentau zaituelako. Eta arriskutsua da gizonazko izatea: ausarta, bildurbakoa, agresiboa izan behar danean gizon izateko, nagusitasuna mantenduteko. Ondorioak bistan dagoz: istripuak, ikasketak ixtea, indarkeria erabiltea, ardurarik ez izatea...

Andrazkoak errez egiten dogu bat bardintasunagaz, zer irabazi asko dogulako. Gizonai, ostera, gatx egiten jakie. Konturatu, konturatu dira, sistemeari esker, gauzen neurria dirala, pribilegio asko dabezala, agintzen dabenak dirala, baina, horri danari uko egitea kostau egiten jakie.

Halanda be, egon badagoz gizon izateko bestelako erak lantzean dabizanak. Arratian bertan, igaz, Gizonduz Programea lantzean ibili zan gizon talde bat, eta aurten be, gura daben mutil eta gizonak aukerea izango dabe, oraingoan, indarkeria sexistearen gaia garatzeko.

Andra ala gizon egin egiten gaitue, egin egiten gara, eta prozesu gogorra eta zorrotza izaten da, desbardintasunean oinarritutakoa.

Guztionean beharra da sistema aldatzea, justuagoa eta demokratikoagoa izan daiten, danon, andron eta gizonen preminai eta nahai erantzunak emoteko, aukera eta tratu bardinak izateko, dikotomien gainetik, zorrotzasan barik, aniztasunaren alde.

Badogu zer egin eta horretan gabiz.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Lei



Zero azpitiko tenperaturakaz ura solidoa egiten da, hau da, leia bihurtuten da (léye, agoskatuta). Izotz esaten da Bizkaiko leku askotan eta batuan. Lei berbea zerari be esaten deusagu: hotza danean, lur azaleko urai eta landareai gainean egiten jakien kapa zuriri. Era baten baino gehiagotan agertuten jaku azken lei hau: lei baltza (ez da ikusten eta oso arriskutsua izaten da); lei zuria (kanpoa dana zurituta dagoanean); lei-haizea (hotz-hotza dana); lei-kandela edo lei-karraldea (izotzezko estalaktita modukoa).

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

**IZAN GINAN...**

**...BAGARA ETA IZANGO GARA**

Endrean Batz gure

MONDRAGON



## LUMATUTEN



**JUAN MANUEL  
ETXEBARRIA AYESTA**

## Itzinako lapurtzarra

**A**ikomen esanda hau entzuneko modu-moduan. Frantsesadea? Bai koño, hori famosoa jatzun. Akordurik be ez dok euki, baina Frantsesadea aitatu deustazunean burura etori jat ha aldi batekoa. Hori Itzinan pasatu ei zan. Edonoizko kontua jatzu izan be gero.

Hor, Itzinan, lapur famadu bat egon ei zan, tremendoa eta bildurgaria. Ezin eban inok harrapatu ze Itzinan kobazulo ugari dago, zeinda, Lapurzulo, Aslegor, eta asko, eta handiena Supelegor, eta alboragoan Atxuloko begia.

Eta lapur famadu horrek urregorri asko ei eukan gordeta Supelegor koba barruan eta kuebea jagoteko herri-zekorra eukiten eban ataka-atakan eta, bera ez dala, besteren bat arrimau ezker, agotik sua dariola hasten ei zan. Herri-zekorra? Hori, zera jatzu, zekor gorizkea, herri-behi edo basabehi errazakoa, hemeko geurea.

Eta, ba, entzutea e, hori Frantsesadea izan zanean, ba frantsesak,

Frantziarantzean, urregorri asko gorde ei eben Itzinako zuloetan, gero bila etorteko-edo. Eta, ba, lapur famaduari ondo etorri ei jakozan frantseson urregorriok be Supelegor zuloan gordetako.

Eta egun baten forasteru batzuk agertu ei ziran Itzinatik urregorritan, frantsesak-edo izango ziran, eta urregorria ez topetara, deskuidu baten, barruntatu eta harrapatu egin ei eben lapur famadu hori, eurekaz eroan eta kartzelan sartu urrunen baten, eta han euki eben presondegian hil arte.

Eta handik geroagora, barriro be etorri egin ei ziran frantsesok urregorri bila baina Supelegorrera joan ziranean, ene mutilak, herri-zekorra agotik sua dariola plantau jakien eta sartu ezin, ezpabere?

Eta, frantsesok, lapurtzarraren arima kondenatua izango ete zan ez ete zan, pentsau eben lapur famaduaren hazurrak topau eta Supelegorreko zulora ekarte. Halantxe egin ei eben eta hazurrok bota eutsiezanean, desaparezidu egin ei jakien herri-zekor hori eta barrura sartu ahal ei ziran eta urregorriok hartu eta eroan.

Lapuraren izena inok ez daki, Patakon zalazkoa be badaukat entzutea.

Eta hori herri-zekorrarena lehenago be kontatu deustut, hori, Anbotoko Señorearen kontuan be bai. Hak be herri-zekorra eukiten ei eban etzunda bere ondoan Supelegorreko atakan goruetan egoten zanean. Kuebea jagoteko eukiko eban. Zeozer izango jatzun, ze kontau be egiten zan-eta.

Frantsesadea, bai gizona, gure ugazabari-eta entzunda han Orozkon. Hak a leidunten be baekian, ondo barriz. Zu, hau baleiteke egia izatea ezta?

## ZERTZEAN



**ALVARO RABELLI**

## Es deustazu traizino egingo

**E**spero baino arinago jausi nintzan Nuriak tre-beziaz ehundu eban aramu sarean. Jakina, baegoan senar bat. Beti dago senar hori, erretratu batetik garondan begiak ilkatuz begituten deustuna. Jaramonik ez egiteko esan eustan Nuriak. Baina ez, ezin neban. Nuriak ez eustan bere senarra gorrotatu behar nebanik esan, neuk ikasi neban gorrotatzen. Hainbestearino gorrotatzen neban, ze Nuriaren laztan guztiek mina eragiten eustien. Haren mundua gorrotatzen neban, zilarrezko markoa eukien argazkietan egun eguzkitsuak ageri ziran mundu ha. Gatxogoa izan zan Nuriaren senarra argazki horreetatik kanpo imajinatea labana batez bere zintzurra ebagitea baino. Odola jariotu zan laba sumendi batetik jariotzen dan moduan. Hasikeran argia eta likidoa zan, gero iluna eta lodia. Zintzurretik erion odol harek Nuriaren senarraren bizia eroan. Bitartean, gu ohean. Entendiduko dozuen lez, ogitartekoai mailuki marmelada ipinteari itxi neutsan, transgresino bakar bategaz nahikoa neukan eta. Zoriontsuak ginan Nuria eta biok. Parkean ibiltzen ginan, zinemara joaten ginan eta geure buruari argazkiak egiten geuntsazan, ondoren, zilarrezko markoetan ipinteko. Denboraz, baina,

gauzak aldatuten hasi ziran. Nuria niregandik aldendu zan. Gurago eban txatetan murgildu nigaz egon baino. Nigaz amodioa egiteari itxi eutsan. Ni, bitartean, ezinean nenbilan, ezin neban ha traizinoa ezelan be onartu. Bere ihesaldia ahal moduan oztopatuten ahalagindu nintzan. Bere telefono mugikorra komunean ito neban, bere portatila birusez kutsatu eta bere modem-a txikitzeraino kolpau neban. Alferrik. Etxean ezin ebalu konturatu zanean, kanpoan konektatzen hasi zan. Orduan Nuria bere burua apaintzen hasi zan. Bere lan batzarrak goizaldera arte luzatzen hasi ziran. Paranoia zurrumbiloan amildu nintzan, ez neban lorik egiten eta lantegiko beharra itxi neban. Nuriari jarraitzen neutsan kaletik, ea nora joian, baina beti izkin egiten eustan, beti. Onartu behar izan neban Nuriak alde eginga ebalu. Etxetik urteteari itxi neutsan, nire biziraupenak arduratzen ninduan. Labana batez armatuta joaten nintzan komunera. Atzanean, armairu baten barruan gorde nintzan, betirako gorde be. Bertan seguru sentitan nintzan, dana kontrolpean neukan, ez eustan inork barriro traizino egingo, ez niri, ezta armairu barruan egozan Nuriaren amoranteak izandakoen gorpuai be.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**G**aur egun tranbia esan, edo orain dala 50 urte esan, errealidade desbardinak izentatzen ditu berba berak, hiztegiaren tranbieren definizioa aldatu ez dan arren. Eta duda barik, Arratiako tranbian 1964an biaje bat egitea eta Bilboko tranbian 2014an, zerikusirik ez daukien esperientziak dira.

Beste horrenbeste eguneroko bizitzan erabilten doguzan gauzakaz. Orain dala 50 urte telefonoa esatean irudikatzen genduan tramankulua eta gaur egungo ipad-en artean mundu bat dago. Denporeak aldatu egiten ditu gauzak. Eta personak. Ze orain dala 30 urteko "ni" a ez da gaurkoa.

Berben esangurea aldatzen da batzuetan. Beste batzuetan, eraldatu edo irauli.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscl.com](mailto:gorosti@gorostiscl.com)

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarribia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejatu Zerbate 100  
R.P.S. 21/06

**FISIOTERAPIA**

Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718

[www.gruposasobide.com](http://www.gruposasobide.com) Tel: 94 657 54 50



## IGORRE

# Arratia Bizirik-en jardunaldiak etorkizuneko baso eredia definiduteko



**Baso ahaztuak dokumentaleko irudia.**

### Erredakzinoa

Baso-jaubeak, herritarrak eta instituzinoak informetako, basoen kudeaketa jasangarriaren inguruko sentsibilizazioa sustatzeko eta jaube pribadu, instituzino publiko eta jentartearen arteko zubiak eregiteko, Arratia Bizirik-ek II. Basogintza Jardunaldiak antolatu ditu hilaren 22rako, Igoerreko Kultur Etxean.

Jardunaldietan basoen orainaz eta etorkizunaz berba egin eta hausnartuko dabe partaideak, eta gaur egun martxan dagozan esperientzien barri emoteko bederatzi konbidadu izango dira. Horreen artean Iñigo Moreno baso eta ingurumen ingeniaria. Honek, herri onurarako mendien kudeaketea herriaren esku ixten danean zer gertatzen dan kontauko dau. Aitor Onaindia baso ingeniariak, basoa aldatuteko gizartea aldatu beharraz jardungo dau. Joxerra Aihartza biologoa izango da beste konbidaduetako bat, eta basoen kudeaketa eta

basabizitzaren konserbazioaren barri emongo dau dimoztarrak. Pako Zufiur basozainak, barriz, baso publikoen gaur egungo egoera izango dau gaitzat. Jon Hildalgok, Lurgaia Fundazioko kidea be egongo da Igorren. Honek, basoak berreskuratzeko lurraren zaintzearen garrantzia egingo dau berba eta Iro Landaluze, baso mikorizatueta zaletuak, onddoen garrantzia azpimarratuko dau. Olate Arrarte baso teknikaria basoaren etorkizunaz arituko da, Valentin Mugarza basozainak espezie eta ekoizpen ugartasunaz eta Silvia Arias geologoak Baso Eskolearen esperientzia konpartiduko dau hurreratzen diranakaz.

Jardunaldion hasikerea 10:00etan izango da eta egun osoa iraungo dabe. Bertan bazkaltzeko aukera egongo da, eguneko menua zein menu begetarianoa. Bazkaltzeko tiketak [www.bibe.me](http://www.bibe.me) webgunearen bitartez erosi daitezke.

### Egitaraua

**10:00**etan, hasikerea.

**10:30**ean, Adituen berbal-di laburrak: "Zer da zuretzako basoa?", "Ze funtzino bete edo helburu izan behar ditu basoak?" eta "Zelangoa izan behar da gure etorkizuneko basoak?".

**11:45**ean eretxiak alkarbanatzea.

**13:00**etan, bazkaria.

**14:30**ean, esperientzien azalpena eta lanketea.

**18:30**ean, ondorioak, agurra eta mokadutxo.

## ARRATIA

# Andren kontrako indarkeria salatuteko martxea eta konzentrazioa

Andrak sufriduten daben indarkeria mota guztiak salatuteko Arratiako andra taldeak, talde feministak, Mankomunidadeak eta Udalak Martxa Morea antolatu dabe hilaren 23rako eta konzentrazioa Igorren Andrankanako Biolentziaren Kontrako Nazinoarteko Egunean, hau da hilaren 25ean. Horreezaz gainera, beste ekitaldi asko egingo dira hamabostaldian zehar.



**Igazko Martxa Morea.**

### Erredakzinoa

Martxa Morea Arratiako herrietatik abiatu eta Areatzan amaituko da. Ibiltariak Dimatik 11:00etan, Igorretik 12:00etan eta Zeanuritik 12:30ean urtengo dira, Areatzara 13:30ean ailegetako. Han, plazea morez jantzita topauko dabe, eta testu bat irakurriko dabe, Zeanuriko andrazkoen jantza taldeak jantzan egingo dau eta kantu eta

indarrak barriztuteko barauskarria izango dabe. Martxa honetan eta zehazkiaren 25eko Igorreko konzentrazioan, andren kontrako biolentzia salatu eta bere kontra agertuko dira herritarrak.

### Zinea, antzerkia eta tailerrak

Beste zortzi ekitaldi be, bakotxa herri baten egingo dana, jasoten dauz Arratiako kartelak.

Lehenengoa, Areatzan izango

da 18an, Maru Sarasola soziologoak *coaching* tailerra aurkeztuko dau Emakumeen Foroko gelan. Bertan, zelan "eregi" hartu-emo-nak beste persona batzuekz batera azalduko dau.

Hilaren 21ean, Zeanuriko Kultur Etxean *Mariposas en el hierro* dokumentala eskeiniko dabe 19:00etan. Hurrengo egunean, indarkeria sexistari buruzko tailerra egongo da arrastiko 17:00etan Lemoako Gaztelekuan eta Oihulari Klown-en *Ezineman* antzerkia Igorreko Kultur Etxean 20:00etan.

Domeka arrastian, hilak 23, zineforum-a egongo da Arteako Kultur Etxean, arrastiko 17:30ean. Bertan *El Cairo 768* pelikulea ikusi eta komentau ahal izango da.

Arantzazun, zehazkiaren 25ean, udalaxe aurrean "Emakumeengana-ko Indarkeriari ez!" testua irakurriko dabe eguerdiko 12:00etan.

Egun horretan bertan, arrastiko 19:00etan, konzentrazioa egingo da Igorreko Kultur Etxe parean.

### Arratiako Beldur Barik sari banaketea

Beldur Barik Arratian Lehiaketako sari banaketea Bediako liburutegian izango da aurten, zehazkiaren 28an, arrastiko 18:30ean. Giroa animetan, hau da, musikea ipinten, DJ ikastaroan parte hartutakoak egongo dira.

Atzenengo ekitaldia egun horretan bertan izango da ordubete beranduago, Diman. Hango gaztetxean "Andrak eta mendia (Lizzie 1884, Marimendi 2014)" berbaldia eskeiniko dabe Marimendi taldekoak.

## ZEANURI

# Udalak ez dau onartu Xorokil kanterearen gaineko herri konsulta egitea

### Erredakzinoa

Zehazkiaren 4ko osoko batzarran, ez zan onartu Udalak herri konsulta egitea Xorokil kanterearen ustiapenaren inguruan. Onartuteko 5 aldeko boto behar ziran eta Bilduko lau botoak baino ez ebazan alde izan.

Garagarrilean Xorokil harrobia- ren proiektuaren inguruan herri konsulta egiteko eskaerea sartu eben hiru herritarrek. Udalar herri galdeketea antolatuteko

eskatzen eutsien herritarren sinadura be erregistrau ebezan; 320 sinadura, eskatzaileen arabera. Ekimenaren bultzatzaileak, zehazkiaren 16an Udalak konsulta egitea proposatzen eben.

Anuska Emaldi Bilduko zinegotziaren arabera, herri galdeketa bateri baietza edo ezetza emon ahal izateko, legeak txosten juridikoa behar da eta hurrengo batzarrerako Udala Idazkariak sinatutako txosten juridikoa eskatu eben.

Momentuz, Ubideko Udalak egindako alegazio bat dala eta, proiektua kautelaz etenda dago, eremu bateko lurak kutsatuta dagoz-eta.

### Harrobia ustiatzeari ozto-poak

Izaskun Sagarna Zeanuriko alkaterearen ustez, Udalak jarduera baimena emon behar dau proiektuak legea bete ezker eta galdeketea egitea alperrikakoa da, Udalak ez daukalako legea urratuteko asmorik. Herri konsultaren eskatzaileak barriz, "ahal dan neurrian eta ilegalidadean jausi barik kanterearen kontra egitea" eskatzen deusie Udalar herri. Proiektuan akatsak bilatu daitezkeza esan eben, Ubideko Udalak egin dauan moduan. "Zergaitik ez dago Zeanuriko Udala irregulari-

dade bila proiektua gelditu ahal izateko?" galdetu eben.

Xorokil harrobia- ren ustiapenaren proiektua geldituteko legalidadearen barruan, beste aukera batzuk emon ziran plenoan. Holan, Bilduk arauetan aldaketa puntualen bat egitea be legalidadea-

ren barruan egon daitekela esan eban, "Bilbon herritarrak makro-diskotekearen kontra egozala ikusita, Udalak Plan generalean aldaketa bat egin dau, jarduera lizentziarik ez emoteko" eta bide hori be aztertze eskatu eben Bilduko zinegotziak.



**Xorokilgo harrobia.**



## ARRATIA

## 200 konpostagailu gehiago bananduko dauz AUMek

## Erredakzioa

Zemendiaren 10ean, abiatu eban Arratiako Udalen Mankomunidadeak (AUM) etxeko konpostaje eta edukiontzi marroien inguruko kanpaina barria. Kanpaina honetan, 200 konpostagailu gehiago bananduko dauz doban etxean lorategia edo soloa daukiezan interesatutakoak eta prestakuntza ikastaroak be emongo ditu. Gainera, konpostajearen inguruko adituen sare bat sortuko da.

Arratiako Udalen Mankomunidadean etxeko konpostajearen inguruan egin zan lehenengo kanpaina etxeko 500 konpostagailu baino gehiago banandu ziran, eta, kanpaina harek eukindako arrakastearen ondorioz, gitxienez beste 200 bananduteko erabagia hartu dau mankomunidadeak, ohar batez jakinarazo dauanaren arabera. Helburua da, epe laburrean, eskualdeko landa-inguruetan edo familiarreko etxebizitzetan bizi diran familien erdiak gitxienez euren konposta sortzea. Holan, materia organikoa ez da eskualdetik kanpora gordeko, garraiatuko eta tratauko.

Hori dala eta bizilagunak hasi dira gutun bat jasoten. Bertan kanpainearen gaineko informazio osoa eta izena emoteko jakin beharrekoak azaltzen dira. Karpa mobikorra be ipiniko dau AUMek

herrietan eta bertan konpostaje teknikariak herritarrei informazioa emoten egongo dira.

## Etxean egindako ongarrria

Etxeko konpostajea materia organikoaren degradazio-prozesua da. Horren bitartez, familien sukaldeetako hondakinak konpost bihurtu leitezke. Holan egindako konposta ongari naturala da, barriro lurrean erabili daitekena, -ortu eta lorategietan- lurraren emonkortasuna hobetuteko. Etxeko konpostajea Europa osoan sustatzen da, hondakin organikoak lekuan bertan murizteko neurri lez.

Sukaldean prestatutako elikagaiak, frutu eta barazkien hondarrak, okela eta haragi hondarrak, kafe hondarrak, infusino hondarrak, hostoak, bedarra eta abar erabili daitezke konposta egiteko.



## LEMOA

## Lanegun bakoitzean, 8.000 biaje inguru egiten dabez kotxean lemoaztarak

## Erredakzioa

Mobikortasun Plana egiteko diagnostikoaren arabera, Lemoan, Ibaizabalen eskuinaldeko auzuneetan, Endara enpresako teknikariak 8.000 biaje inguru kontabilizatu dabez lanegunetan. Hor, biztanleen % 68 bizi da, 2.414 lagun eta 1.189 auto dagoz. Zifra honeek auto pribaduaren erabilera handia erakusten dabe, nahiz eta herri barruko distantziak txikiak izan eta herrikan publikoaren eskeintza handia izan.

Trafiko handiena izaten dauan bidekurutzea Intzuntzako da, 4.414 ibilgailu pasetan dira hortik egunean, Talerretako bidekurutetik 1.281 ibilgailu. Agarre, Estazioa eta Pozuetako bidekurutzeetatik, barriz, 797, 685 eta 670 ibilgailu hurrengo hurrengo.

## Aparketako problemarik ez Lemoan

Lemoan 3.536 biztanle eta 1.724 kotxe dagoz. Ratioa, 2,05, Europa eta Bizkaikoaren antzekoa da.

Auto asko egon arren, aparketako problemarik ez dago Lemoan. Izan be, 288 leku superabita (% 22) kalkulatu dabe Endarakoak. Ikerketa hau egiteko 10 eremutan zatitu dabe herria eta ikerketea biztanleen % 74

hartzean dau, (2.608 biztanle), eta autoen % 75, hau da, 1.286 ibilgailu.

Eremu batzuetan, Inzuntzan, berbarako, aparkaleku gitxi dagoz, baina aparkalekuak sobran daukiezan eremuz inguratuta dago.

## Garraio publiko ona

Lemoatik Bizkaibuseko bost linea pasetan dira eta trenak be zerbitzu ona eskeintzen dau. Zerbitzu honeen erabilera ez dabe neurtu Endarakoak baina teknikariak orain dala hamar urte Leber-en ikerketa bat aiatu eban. Orduan, herrikan kanporako biajeen % 65 garraio publikoan egiten ziran.

Diagnostiko hau egiteko Endarakoak 200 inkestatik gora egin

deutseez lemoaztarrai.

Inkestatuen % 86k kotxea dauka. (Eskolako patioan egin ziran inkesta asko eta 30-65 urte bitartekoak ziran gehienak).

## Eskola edo lanera joateko, 19 urte arte:

% 67 oinez joaten da.

% 21 kotxez.

% 12 garraio publikoan.

## 19 eta 65 urte bitartekoak:

% 71 kotxez.

% 15 oinez.

% 13 garraio publikoan.

Herri barruan, gehiengo handi batek (19 urte artekoak % 84) oinez ibiltzen dala dino. Bizikletea be agertzen da. 19 eta 65 urte bitartekoak % 20k kotxea erabiltzen dabela erantzun dabe.



Herritarrek proposamenak egiteko aukerea euki eben.



## EUKIONTZI MARROIA ETA ETXEKO KONPOSTAJEAREN INFORMAZINO-PUNTUAK AZAROAN

astelehena	martitzena	eguztina	eguna	barikua	zapatua	domekea
						16 DIMA Plazan 11:00-14:00
17 BEDIA Plazan 10:00-14:00 16:00-18:30	18 ZEANURI Plazan 10:00-14:00 16:00-18:30	19 AREATZA Plazan 10:00-14:00 16:00-18:30	20 ARTEA Plazan 10:00-14:00 16:00-18:30	21 IGORRE Lehendakari Agirren 10:00-14:00 16:00-18:30	22 UBIDE Plazan 11:00-14:00	
24 ARANTZAZU Plazan 10:00-14:00 LEMOA Arralbin 16:00-18:30	25 LEMOA Elizondoko parkean 10:00-14:00 16:00-18:30					

## EUKIONTZI MARROIA:

Zure udaletxera edo Mankomunidadea joan:

- o Izena emon
- o Kuboa, boltsak eta giltzea eskuratu
- o **APUNTATUTA BAZAGOZ:** Boltsak eta behar dozuzan materialeak eskuratu

## ETXEKO KONPOSTAJEA:

Mankomunidadeko 94 631 17 17 telefonora deitu edo [arratia21.ariatia@bizkaia.org](mailto:arratia21.ariatia@bizkaia.org) korreoan:

- o Izena emon
- o Informazioa jaso
- o Kezkak eta aholkuak
- o Materia lehorra non lortu
- o Biotrituradoreak eskatu
- o Materialeak eskuratu



KONPOSTAJEAGAZDANONDODA



## IGORRE

# Batzarrak egiten dabiz Igorren 2015eko aurrekontuak begira

### Erredakzioa

Igorretarrak herriko diruak zelan gastatu esateko aukera euki dagoen, zehazkiaren 10ean hasi ziran auzo eta arloetako batzarrik. Batzarrotan, udal ordezkariak herritarrekaz batzean dira euren eretxiak eta ekarpenak jasoteko.

Zehazkiaren lehenengo hamabostaldian, bost batzar egin dira, hiru auzuneetako bizilagunakaz eta arloetako bi. Hau da, Garbe-Mikele, Garkoi-Urkuzu eta San Kristobaleko auzuneetakoak egin dabiz aurrekontuetarako euren ekarpenak. Arloetako batzarri jagokienean, andrakaz eta jubila-duakaz batzartu dira udaletxeetako.

Bigarren hamabostaldian auzoko hiru batzar eta arloetako beste hiru egongo dira. Basahuntz eta Gezalako biztanleak, hilaren 17an batuko dira udal-txean, San Juan eta Beheko plaza-koak hilaren 19an txokoan eta

erdigunekoak hilaren 20an Kultur Etxean. Gazteak Kiñu Gaztetxean eta kirol eta kultur alkarteak Kultur Etxean, hilaren 18 eta 26an hurrengo hurrengo, izango dabe aukera datorren urteko diruak udalak zertan gastatea gura daben esateko.

### Aurrekontuen gaineko ale berezia

Aurrekontuetan parte hartzeako sistema hau martxan ipini zantetik, 2011n eta gaur arte egingakoa azaltzen dauan aldizkari bat atera dau Igorreko Udalak, etxe guztietara banandu dana. Bertan, auzunez auzune, lau urte honeetan herritarrek egingako proposamen edota eskaeren barri, eta egin diran beharrak eta martxan dagozanak esaten dira.

Arloetako batzarretan egingako proposamenak be zerrendatuten dira Igorre aldizkari zerbaki berezi honetan.

## ARRATIA

# Kontzertu ugari Santa Zezilia egunaren inguruan

### Erredakzioa

Zezili Deuna musikari zaindarien eguna ospatuteko Areatzako Bandak, Luis Iruarizaga Abesbatzak eta Arratiako Musika Eskoleak emonaldiak antolatu ditue. Arteako Kirol, Kultur eta Euskera Taldeak be (AKKT), Arteako II. Azaro Musikalaren barruan hainbat ekitaldi antolatu ditu, blues-rock-a tartean.

Santa Zeziliaren eguna ospatuteko programata egoan lehenengo kontzertua, Areatzako Bandarena zan, Paula Perez Buenoren zuzendaritzapean, zehazkiaren 15ean. Hurrengo egunean, Igorreko Lasarte Aretan Kantika Koralaren txandea zan, bere ikuskizun originaletako bat eskeintzeko. Abesbatzan kanteak etorkizuna daukala eta gazte-txontzat erakargarria izan daitekeela erakutsi dabe Kantika Koralekoak.

### Arratiako Musika Eskolea eta Luis Iruarizaga Abesbatzak emonaldi ugari

Zehazkiaren 20an Igorreko Olabari auzoan zehar kalejira egingo dabe Arratiako Musika Eskolako ikasleak. Txoko batzuk zehaztu eta leku bakotxean ume txikierak zerbait abestuko eta jantzituko dabe, batetik bestera kalejira joanda eta amaieran txokolatea egongo da partaideentzat. Eguraldi txarra egingo badau, eskolako aterpean izango litzateke ekintza hau.

Hurrengo ekitaldia, AKKT bere zehazkiaren musikalaren barruan antolatutakoa da. Zezili deunaren bezperan, hilak 21, seiretatik aurrera Arteako umeak musikeagaz gozatu dabe herriko plazan. Hurrengo egunean, arrastiko 20:00etan, Arteako eskolako umeak, kontzertua eskeiniko dabe Arteako Andra Mari eleizan, Arratiako Musika Eskolako umeakaz eta Luis Iruarizaga Abesbatzagaz batera.

Arratiako Musika Eskolakoak beste hainbat emonaldi izango dabe egunotan. Hilaren 29an, 18:00etan, Arteako San Migel ermitan joko dabe Musika Eskolakoak. Pianojoleak, kamara taldeak eta tailerreko ume txikierak egingo dabe emonaldi hau. Hilaren 30ean, Igorreko ludotekako umeakaz eta Luis Iruarizaga Abesbatzagaz batera, Musika Eskolako korua egongo da Igorreko Lasarte Aretan, arrastiko 19:30etik aurrera. Eta Musika Eskolako trikitilariak Zeberioko Azokan ipiniko dabe jaigiroa egun horretantxe.

Hilaren 28an, 22:30ean, AKKT-antolatuta Electors taldea egongo da Herriko Benta tabernan, euren blues-rock estiloko musika jotzen.

## ARRATIA

# Indarkeria matxistea dala eta, hamahiru andra atendidu dabez Mankomunidadean

### Erredakzioa

2014an, urrietara arte, Arratiako Udalen Mankomunidadeko Gizarte Zerbitzuak hamahiru andra artatu ebazan, Mankomunidadeko Bardintasunaren Zerbitzuak emondako datuen arabera. Artatzen dana errealdadearen % 10 izaten da, "hau da, 13 andrazko atendidu badira Arratian, horrek esan gura dau, gitxienez, 140 kasu dagozala".

AUMko Gizarte Zerbitzuetan, arreta, laguntza, baliabide espezializatutara bideratzen da, (laguntza psikologikoa, juridikoa...) koordinazioa eta kasuaren jarraipena egingo da.

Bestalde, Bardintan Zerbitzuan, informazioa, prestakuntza, koordinazioa, prebentzioa eta sentibilizazioa lantzen da gainerako erakunde, alkarte eta herritarrekaz.

### Gehienak bizkaitarrak

Jatorri, edade eta egoera zibil guztietako gizonak egingo dabe indarkeria andren kontra eta jatorri, edade eta egoera zibil guztietako andrak jasaten dabe indarkeria mota hori. Mankomunidadeak aurten artatutako hamahiru andra horreen batz besteko edadea 40,6 urte izan da: 17 eta 30 urte bitarteko hiru andra, 31 eta 40 bitarteko beste hiru, 41 eta 50 bitarteko lau andra eta 51 eta 60 urte bitarteko hiru. Andren jatorriari jagokoenean, gehienak Bizkaitako dira, hamar, hain zuzen be;

beste bat Estaduko eta etorkin bi.

Bananduteko prozesuan dagozan andrak atendidutakoen % 46 dira: sei andra. Ezkonduetako hiru, ezkonbako bi eta banandutako beste bi be atendidu ebazan zerbitzuak. Hamahiru andra horreetatik 10 ama dira eta beste hiruk ez daukie seme-alabarik.

### Salaketea

Mankomunidadeko Gizarte Zerbitzuak indarkeria sexista sufridu daben andrai laguntza juridikoa be emoten deutse eta kasuaren jarraipena egingo dabe. 2014an, artatutako % 77,7k salaketea ipini dabe; hau da hamar andrak.

Mankomunidadeak atenditutako andren % 54 Gizarte Zerbitzuak bideratuta izan da eta beste % 46 Ertzaintzak bideratutakoa.

Laguntza juridikoa edo laguntza psikologikoko zerbitzu espezialduak erabili dabez batek izan ezik beste guztiak.

### Laguntza jasoteko

Arratian neska edo andra batek indarkeria mota hau bizi badau edo bizi dauanik ezagutzen badau, telefono honeetara deitu daiteke laguntza jasoteko: 112 Larrialdiak, 900 840 111 telefonoa, 24 ordukoa, deialdekoa eta konfidentziala, 94 631 17 17 Arratiako Udalen Mankomunidadea. Gizarte Zerbitzuak eta Bardintan Zerbitzua, 08:00etatik 15:00etara zabalik dago.

## ARRATIA

# Lanbidek enplegu zentroa ipini dau martxan Artean

### Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunidadeak eta Lanbidek Arratia eskualdeko lehenengo Enplegu Zentroa ipini dabe martxan. Arteako Kultur Etxean dago eta orientazioa eta arreta personalizaua emongo dau barikuetan 08:30etik, 14:30era.

Orain arte, arratiarrak Zornotzara joan behar izaten eben orientazio eta formazioa jasoteko, baina Lanbidek hurreratu gura izan ditu zerbitzu honek. "Eta hau ez da izango Arratiara hurreratu dogun atzenengo zerbitzua" esan eban Gotzone Sagardui Lanbideren zuzendariak Enplegu Zentroaren aurkezpenan.

### Arteako zentroa

Arteako zentroan, lana topetako baliabideen gaineko autokonsultarako tresnak ipini dira erabiltzaileen esku eta orientatzaile bat dago, laneratzeko bidean laguntzeko. Taldekako tailerrek be egingo dira, beharra topetako prestakuntza egongo da, lan boltsen gaineko informazioa, lan eskeintzak non topau, eta abar. "Atzen helburua, beharra topetan eraginkorrek izatea da" esan eban Josune Gorospe AUMeko presidentea.

Zerbitzuak Europako Gizarte Funtsaren laguntza dauka eta Lanbide Euskal Enplegu zerbitzuak emoten dauzan eskeintzen barruan dago.

Erabiltzaileak aurrez izena emonda izan beharko dabe Lanbiden.



Enplegu zentroaren aurkezpena.

## ARRATIA

# "Gizonezkoak eta indarkeria sexista" tailerra

### Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunidadeko Bardintan Zerbitzuak, Emakundegaz batera, Gizonduz Programea aurkeztuko dau tailer baten bitartez.

Tailerra Arratiako gizonentzat izango da. Parte hartu gura dabena izena hilaren 21a baino lehenago emon behar dabe. Tailerra, barriz, zehazkiaren 24an izango da, 17:00etatik 20:00etara, Igorren, mankomunidadean. Partaideak, *Un mundo mejor* pelikulea ikusiko dabe bertan, eta ostean

gizonezkoen indarkeriari buruzko zineforuma egingo dabe.

### Gizonduz

Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimen aurreraria da, Emakundek bultzatua, eta helburu dauka andren eta gizonen arteko bardintanaren alde, gizonak kontzientzia, inplikau eta euren parte hartzea sustatutea.





## ARRATIAKO TRANBIA

# 50 urte Arratiako tranbia barik

1964ko zehemendiaren 29an egin eban atzen biajea. Ehun urtetik gora igaro dira, gehienbat Arratiako tranbia izenez ezetuten dan Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa jaio zanetik, eta 2014ko zehemendiaren 29an bere heriotzearen 50. urteurrena beteko da. Tranbia ekologikoa eta isila zan, baina batez be ezinbesteko erreferentea erabili behar izaten eben lagunentzat. Urteak aurrera joan ahala eztanda-motorea, gasolina eta petrolioaren beste deribadu batzuen sasoia heldu zan. Eta orduan, 1964ko zehemendiaren 29an, Arratiako tranbiaren heriotzea gertatu zan.



Merkantziak eta bidaiariak eroaten ebazan Arratiako tranbiak.

Argazkilaria ezezaguna.

## Jon Urutxurtu

Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren —TBDA— historia arakatzek XIX. gizaldiaren amaierara salto egitea suposatzen dau, 1898an Sustapen Ministeritzak lurren-tranbiaren kontzesioa Angel Iturraldei emon eutsan unera hain zuzen be. Dana dala, tranbia hareek inoz be ez ziran ibili lurren-makinak mobiduta, eta 1899ko urri lehenengoaren 2an, Lemoa-Artea tartearen behin-behineko inaugurazioa burutu zanean, lehen tranbiak animalia-trakzinoaren bidez ebilzan. Inaugurazioagaz batera, "Automóvil Vitoriana" konpainiak, Barazar mendatetik igaroz, Areatza eta Gasteiz lotzean ebazan autobus zerbitzua jarri eban martxan.

1902ko garagarilaren 5ean, probak egiteko lehenengo tranbia elektrikoa Durangora heldu zan; aste batzuk beranduago Lemoa-Zeanuri tartean trakzino elektrikoa eukan zerbitzua hasi zanez, animalia-trakzinodun tranbiak kendu egin ziran. Atzenik, egun handia heldu zan, eta 1902ko abenduaren 7an, Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren behin betiko inaugurazioa burutu zan.

Amorebieta-Etxano, Durango eta Arratiako herriak euren artean eta Bilbogaz lotuten ebazan garraio bide ha, Arriaga Antzokiko plazatik ateratan zan Lemoara zuzentzeko, eta hemen linea bitan bananduten zan: Durangorantza edo Zeanurirantza. Tranbiabidearen

luzerea, guztira 49,21 kilometrokoa zan; horreetatik 20 Bilbo (Arriaga) eta Lemoako tarteari egokozan; Lemoatik Durangorako lineak 14,6 kilometro eukazan, eta antzerako luzerea eukan Lemoatik Zeanurirako tarteark.

## Bidaiarien eta merkantzien garraioa

Bere bizitzako lehenengo urteetan lehia zorrotza izan eban Bilbotik Durangorako trenbide estua ustiatzen eban Konpainia Zentralagaz, baina 1911ko bagilearen 12an, Ferrocarriles Vascongadosen Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren akzino guztiak erosi ebazanean, amaierara emon jakon bi enpresen arteko burrukeari.

Hurrengo urteetan zerbitzuaren hobetzeari ekin eutsien jaube barriak: azpiegiturak barritzatu ebazan eta bidaiarentzako bagoien kanpoko itxurea —ordura arte egur barnizutakoa zan— aldatu eta beilegiz margotu ebazan.

Urte horreetan bidaiarien eta merkantzien trafikoa gora egin eban, adibidez 1929an, 4.196.460 persona eta 89.287 tonelada merkantzia garraiatu ebazan. Kontuan izan behar da linean hainbat lantegitara sartzeako bazterbideak egozala: Barbier-era, Abusun; Santa Anara, Boluetan; Basconiara, Basaurin; Firestonera, Urbin; Elpidio Bartolomera, Cementos Lemonara, eta La Flechara, Lemoan, eta abar.

## Ebaketak tranbiabidean

Bere 60 urtetik gorako historian tranbiabidearen errailak tarte baten baino gehiagotan ebaketak jasan ebazan. Holan, gerra zibilagaz Amorebieta-Durango tarteko zerbitzua eten egin zan, eta gerra amaitu ostean, kalteak ez ziran konpondu; alde batetik, konponketen gastuak handiak ziralako eta bestetik, Ferrocarriles Vascongados konpainiak zati horri eusteko interesik ez eukalako, trenbidearen zerbitzuagaz nahikoa zala uste eben eta. Gainera, aldi berean Bilboko terminala Arriagako plazatik, antzokiaren atzeko aldera lekualdatu zan. Sasoi honetan, trafikoa, batez be bidaiariena, etenbarik hazi zan; hazkunde horren zergaitien artean, estraperloa eta Ariz-Urbi-Galdakao aldean gero eta handiagoa zan industrializazioa azpimarratu behar dira.

1950eko martiaren 27an,

Lemoa eta Amorebieta lotzean ebazan tartea itxi bazan be, 1952an Arratiako tranbiak diru-sarrerari zein bidaiarien trafikoi jagokienez, bere gorengo emoitzak lortu ebazan, eta guztira 6.749.914 persona garraiatzera heldu zan. Merkantziak, ostera, kaminotik garraiatzeko zerbitzuak ugaritzen ziran neurrian, beherantzako joerea erakusten eben. Hasikeran, 1953ko zenbakiak aurreko urteko joera azaltzen baeben be, urri bigarrenaren 15eko uriolak Urbin, Nerbioi ibaiaren gaineko zubi metalikoa aurrean eroan eben eta 1954ko zehemendiaren 24ra arte zerbitzua ez zan berrezarri. Gainera, Bilboko Barandiaran eta Urazurrutiako kaietan ibaiertzeko hormaren zati handia hondatu egin zan eta, egoera hau aprobetxauz, uriburuko udalak Arriagako plazarako sarbidea kendu egin eban; aurrerantzean tranbiak Barandiarango kaietan hasi behar izan eban zerbitzua.

## Iragarritako heriotzea

Hemendik atxina, Arratiako tranbia hil zorian sartu zan. Alde batetik, bidaiariak etenbarik galduz joian eta bestetik, bere egoera ekonomikoa gero eta larriago zan. Horrezaz gainera, lineak zeharkatzen ebazan errepideetan zirkulazioa apurka-apurka gehitu egin zan, eta tranbia eta automobilen arteko bizikidetzak txarrera egin eban, tranbia oztopotzat jotzen hasi ziran eta. Testuinguru horretan, 1956ko abuztuaren 1ean Galdakao (Plazakoetxe)-Lemoa kenteagaz, ibilbideak anputazio larria jasan eban; ondorioz, linea euren artean lotura bako bi tartetan zatituta

946 319 008  
658 195 091

Udagoien eta neguko koleziozko barriak ikusi gura badozuz, SARTU FACEBOOKera  
[www.facebook.com/galanta.lenceria](http://www.facebook.com/galanta.lenceria)

Agirre Lehendakaria 23  
48 140 Igoerre  
galanta@hotmail.es

**GALANTA**  
zure barruko arropa

**M. JOSE**  
barrutik janzen zaitu

Graduazinoak  
-ikusmen terapia  
-ikusmen gubitua  
-Begiko tentsioa  
-Lentillen adaptazioa  
-Kiroletarako betaurrekoak

**Olaetxe**  
OPTICA CENTRAL

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es





**Arratiako tranbia uriolen erdian, La Peñan, 1953ko urri bigarrenaren 15ean. Argazkilaria ezezaguna.**

geratu zan: Bilbao (Barandiaran)-Galdakao, 10 kilometrokoa, eta Lemoa-Zeanuri, 15 kilometrokoa. Urte bi beranduago, 1958ko urri bigarrenaren 1ean Urbi (Firestone)-Galdakoa (Plazakoetxe) tartea eta Zeanuriko erdigunerako sarbidea kendu ebezan. Itxiera horreek merkantzien garraioa ia guztiz desagertzea eta bidaiariena etenbarik jaista ekarri eban.

Argi egoan, 1962ko abenduaren 5ean, Arratiako tranbiarako administrazioaren kontzesinoak balioa galdu egunean, zerbitzua bertan behera itxiko ebela. Ha eta guztiz be, ordezko autobus-lineak ezartzeko administrazioaren baimenak ez ziran heldu, eta tranbia zaharrak 1964ko zemendira arte beharrez jarraitu eban. Atzen hilabeteetan Zeanuriko geltokia be lekuz aldatu behar izan eban: 1964ko udabarian, 240-N errepideko obrak zirala eta herrigunean egoan geltokia kendu eta 500 metro aurreragora, Olabarrira, eroan eban.

#### Atzen biajea

1964ko zemediaren 29an, domekan, egin eban bere atzen biajea Arratiako tranbiak. Egun euritsua izan zan, baina ospakizun eta jai giroan agur esan jakon tranbiari, batez be mendigoizaleen aldetik. Honeek, tranbia omendu gurean, tranbia bi alokatu ebezan; goizeko bederatzietan Lemoatik abiatuz, Igorre eta Areatzan gelditu ostean, hamabi eta erdiak inguruan Zeanurira heldu ziran. Hemen bazkaldu eta txistu eta danbolinaren soinuaz jantzan egin eta gero, barriro Bilborantza itzuli ziran, Lemoan trena hartuz.

Zemendiaren 30ean, tranbiaren biajeak amaitu ziran. Aurrerantzean, Bilbotik joan-etorria egiteko arratiarrak izan eban garraio publiko bakarra autobusa izan zan.

José Félix Garairen —Arratiako tranbiaren zale amorratua— arabera Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa enpresa itxi zanean, 74 langilek egiten eban behar bertan, eta euren etorkizuna holan geratu zan: 9 langilek enpresa berean jarraitu eban; 34ri krisi espedienteak deklaratu eutseen; 21 Ferrocarriles Vascongadosera, beste 9 Autobuses de Arratiara igaro ziran, eta batek dimisioa boluntarioa aurkeztu eban.

#### Atzen errastua

1965ean, Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa enpresan geratzen zan materialaren enkantea agindu eban. Dana dala, 1964ko abenduaren 1ean, El Correo egunkarian Juan Buxens kazetariak idazten ebanaren arabera, bi tranbia ataltzetik libretako asmoak egozan: "Sí. Algunos irán al desguace. Pero no todos. Es casi seguro que dos de ellos continuarán viviendo (...). Si se llega a un acuerdo, y esto parece que será fácil de conseguir, dos de los tranvías podrán ser admirados durante muchos años.

(...) Si ese acuerdo del que hablábamos se lleva a efecto, uno se instalará en el Bolincho (La Peña). Va a ser adquirido por el conocido Elicio para instalar sobre él un merendero público(...).

El otro tranvía será comprado, probablemente, por don José Aguilar para instalarlo en su jardín de Vildósola".

Kontuak kontu, atzanean ataltzetik salbau zan tranbia bakarra Migel Atutxak erosi eban, eta Igorren, Garbe auzunean eukan Hostal Aranzazu ostatuaren ondoan jarri eban. Hamar zenbakidun tranbia zan, alde baten Ceanuri eta bestean Bilbao inoazan karteltxoak eukazana. Gomazko gupilen gainean eta lau mandok tiraturik egin eban Lemoatik Garberainoko bidea, txistulari, trikitalari eta albokariaren doinu eta jentearen txalo eta oihuen artean. Garberainoko biaje hori garai haretan hain ospetsua zan ze Nodo albistegirako filmau eban, eta irudiak Estatu osoko zinematari ikusi ziran.



**Arantzazuko gazteak Hostal Aranzazuren aurrean. 1965. Pedro Uretaren argazkia.**

## "BILBOTIK DURANGO ETA ARRATIARAKO TRANBIA ELEKTRIKOA"ren KRONOLOGIA

- \* 1898ko abuztuaren 3an: Bilbotik Durango eta Arratiarako lurren-tranbiaren kontzesinorako enkantearen iragarpena argitaratzen dau Estaduko Aldizkari Ofizialak.
- \* 1898ko zemendiaren 16an: Bilbo, Durango eta Zeanuri artean ibiliko dan tranbiaren kontzesinoa Angel de Iturraldearen eskuetan geratzen dala ezagutzera emoten dauan Erreal Ordena argitaratzen da.
- \* 1899ko urtailaren 9an: "Tranvía Eléctrico Bilbao a Durango y Arratia" (TBDA) konpainia sortu zan.
- \* 1899ko martiaren 11n: Tranbiaren lanak inauguratuko ekitaldia egin zan Areatzan.
- \* 1899ko urri lehenengoaren 2an: Tranbiaren behin-behineko inaugurazioa, animalia-trakzioaren bidez, Lemoa-Artea bitartean. Aldi berean, Gasteizerako autobus-zerbitzu konbinatua martxan jarri zan.
- \* 1900eko zezeilaren 22an: Erreal Ordenaren bidez Bilbotik Durango eta Arratiara Tranbia elektrifiketako baimena emon zan.
- \* 1901eko bagilean: Enpreseak lehenengo tranbia elektrikoak jaso eban.
- \* 1902ko garagarriaren 5ean: Probak egiteko lehenengo tranbia Durangora ailegau zan.
- \* 1902ko abuztuaren 1ean: Lemoa-Zeanuri tartean argindarrak mobitutako tranbien zerbitzua hasi zan.
- \* 1902ko urri bigarrenaren 15ean: Abusuko zubiaren proba ofizialak. Sasoi haretan Estatu mailan egoan hormigoi armaduzko handiena zan.
- \* 1902ko abenduaren 7an: Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren behin betiko inaugurazioa.
- \* 1911ko bagilearen 12an: Ferrocarriles Vascongados Konpainiak "Tranvía Eléctrico de Bilbao a Durango y Arratia"ren akzinoak erosi eban.
- \* 1937ko maiatzean: Amorebieta-Durango tarteko zerbitzua eten egin zan.
- \* 1938ko zemendiaren 30ean: Amorebieta-Durango tarteko bideak eta elektrifikazioa kentzean hasten dira.
- \* 1950eko martiaren 27an: Lemoa-Amorebieta tarteko zerbitzua itxi egin zan.
- \* 1953ko urri bigarrenaren 15ean: Uriolen ondorioz, Bilbo-Lemoa tarteko zerbitzua gelditu egin zan. Harrezkero, tranbiak ez ziran Arriaga Antzokiko plazaraino heltzean.
- \* 1953ko urri bigarrenaren 19an: Lemoa-Urbi tarteko zerbitzua barriz jarri zan martxan.
- \* 1954ko zezeilaren 24an: Bilbo (Barandiaran)- Zeanuri tartean zerbitzua guztiz berrezarri zan.
- \* 1956ko abuztuaren 1ean: Galdakao (Plazakoetxe)-Lemoa tartea itxi egin zan.
- \* 1958ko urri bigarrenaren 1ean: Urbi-Galdakao (Plazakoetxe) tartea itxi egin zan.
- \* 1964ko zemendiaren 2an: Zeanuri-Lemoa-Bilbo eta Urbi-Bilbo autobus lineak zabaldu ziran.
- \* 1964ko zemendiaren 29an: Arratiako tranbiaren atzen biajea eta atzen agurreko jaialdia.
- \* 1964ko zemendiaren 30ean: Lemoa-Zeanuri eta Bilbao-Urbi tartea behin betiko itxi egin zan. Arratiako tranbia desagertu egin zan.

**Okindegia**  
+ Ke... PAN  
Etxean bertan egindako pastelak

**IGORRE**  
Lehendakari  
Agirre 11  
94 656 65 52  
Sabino Arana 35  
94 657 3898

**AREATZA**  
Goiko kalea 8  
94 608 90 47



## KIROL ASTEA

## Zumba maratoia eta beste kirol asko kirol astean

## Erredakzioa

Lemoan, zemendiaren 17tik 23ra kirol astea antolatu dabe Udalak, kirol alkarteak eta eskolak. Eskola-umeentzako jarduerak egongo dira eta publiko zabalari zuzendutakoak be bai. Skate, mendia, futbola, pelota partiduak, zumba eta herri kirolak ikusi edo praktikatuko aukerea egongo da.

JB Eguzkitza Meabe ikastetxean egingo diran jardueren artean dagoz Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako ibilaldia Lemoatik hilaren 18an goizez eta arrastian, 16:30etik 18:30era skate saioa. Hurrengo egunean Oihana Kortazar mendi lasterketaria egongo da

eskolan, kirol minoritario eta kirola eta andrak gaiak tratetako. Barikuan, hainbat kirol praktikau ahal izango dabe eskolako patioan.

## Egitaraua

Berbaldiak, futbola, pelota partiduak edota herri kirolak ikusi edo mendi urtekeran parte hartuz kirolaren onurak disfrutauko dabez lemoztarrak. Aikomen eskolatik kanpo antolatu diran jarduerok.

## Zemendiak 17, astelehena

19:00etan, "Jarduera fisikoa eta osasuna: egungo eta etorkizuneko errealitatea eta ekintza-lanketea" berbaldia. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

## Zemendiak 19, eguaztena

19:30etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, "Atlas 14" proiektzioa eta argazki erakusketea Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

## Zemendiak 20, eguena

19:30etan, Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatuta, "Futbola eta hezkuntza" berbaldia. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

19:30etan, CD Lemoaberrik antolatuta, futbol partidua (neskak). Athletic Club vs CD Pauldarrak.

## Zemendiak 21, barikua

Goizean zehar kirol eguna eskolan. Kirol desbardinak eskolako patioan.

16:30etan, Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatuta, "Bonbonera" futbol ekintza kiroldegian.

19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, *stretching* saioa. Jubiladuen etxeko goiko aretoan.

20:30etan, Lemoako Harrobi Futbol

Klubak eta Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, kopaua kiroldegian.

21:00etan, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, eskupeleta partiduak frontoian.

## Zemendiak 22, zapatua

17:00etan, Kirlan-ek antolatuta, Zumba maratoia Elizondoko kul-

turguneko plazan.

## Zemendiak 23, domekea

08:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, mendi urtekerea. Lagran-Okina. GR-38.

13:00etan, Mendieta Herri Kirol Taldeak antolatuta, herri kirol erakustaldia Elizondon.



**Gure Ikastetxeak**  
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskoladuna, kalitatekoa, herrikoa

Arratia BHI  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Barxilengok, Hezkuntza zikloak

ARA MOTZ  
Lanegunak O Jartzen!

24h  
EGUNEKO OGIA  
vending pan  
IGORRE  
Lehendakari Agirre

OPEL  
Ibaigane, S. Coop. Ltda.  
EstaurFox, 15  
48330 LEMOIA (Bizkaia)  
Telfs. 631 33 30 - 631 31 31  
Fax 631 36 15

arratiako instalazioak s.l.  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

## Badatoz, badatoz...

Aurten be lapikorik onena egiteko  
Merkalabelako txorizo eta odolosteak daukoguz



Saltxitxak, hanburgesak, baserriko okelea,

untxiak, baserriko arraultzak, artxoak...

MERKALABELA HARATEGIA  
Lehendakari Agirre 15 - Igorre  
Telefona: 94 673 63 10

FISIK  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

RUGBY  
TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/



## TXIRRINDULARITZEA

# Naia Alzola: "Txirrindularitzako araudia eraldatzeko garaia heldu da"



Naia Alzola Dimako txirrindularia.

### Erredakzioa

Ziklo-krosean bardintasuna eskatutako kanpaina egiten dabiz Naia Alzola Dimako txirrindularia eta beste andra txirrindulari batzuk. Beste gauza batzuen artean, urteera propioak eta sari bordinak eskatzen dabez. Horretarako ziklo-kros lasterketetan pankarta batez agertzen dira, sinadurak biltzen dabiz eta federazio eta erakundeak babesa eskatu deuse. Abenduan Espainiako Federazioak egiten dauan batzar orokorrean proposamenak aurkezteko asmoa daukie "datozen urtetik aurrera araudiak gonoraz eraldatzeko" eta ziklo-krosean bizi dabiz diskriminazioagaz amaituteko.

### Ziklo-krosean gizonetako eta andrazkoen emoten jakiez sariak bordinak izatea eskatzen doazue.

Ez da sarien kontua bakarrik. Txirrindularitza oso kirol matxista izan da beti. Urte asko daroaguz bizikleta munduan murgilduta

eta uste dogu heldu dala garaia gauzak ondo egiteko. Ez da bakarrik gure burruka. Ziklo-kroseko denporaldia martxan hasi zanean, ziklo-krosari neska batzuk batu ginan esateko ez daukagula duintasunik gure lasterketetan.

Sariak txikiagoak dira, ez daukagu urtekerak parrillarik, ez daukagu kategoriarik, lasterketa batzuetan ez dakigu ezta zein ordutan korridu behar dogun, egunean bertan esan arte. Eta ez dogu gura desbardintasun tratu txar hori jasan. Kantsau egin gara.

Ziklista batzuk hasi gara baina federazioen eta erakundeen babesa eskatu eta lortu egin dogu. Hedabideak be, antza, babesa emongo deuskue. Pentsetan dogu danon artean egin beharreko aldaketa dala hori.

### Zeintzuk zari kanpaina honen bultzatzaileak?

Talde desbardineko partaideak gara. Ni BZK taldean nago. Gipuzkoako Maite Murgia eta Monica Carrascosa Asturiasekoa be burruka honetan dagoz. Sare

sozialak daukien eragin zoragarri horregaz, zabaldu egin dogu kanpaina eta lortu dogu Estatu mailako txirrindulari ohi eta txirrindulari munduan dagozan neska asko inpliketea.

### Ze taldetakoak zari?

Ni Tiritun nago, Tiritukoa naz, baina karrerarako kontratu bat daukat ekipo batez, BZK neska taldeagaz. Tiritu master talde bat da eta masterrakaz parte hartzea ez da neskak bezain polita. Tiritukoa naz, Tirituko erropakaz entrenetan dot hemen, baina gero lasterketetan arrosaz jantzen naz. Maite Murgia, Gipuzkoako Ampo ekipokoa da eta Euskal Herri mailan biok gabiz

### Diru gitxi egoten danean, andrazkoentzat ezer be ez, ezta? Igorreko Ziklo-krosak be ezin izan utsan utsi Munduko Kopako lasterketa izateari, beste gauza batzuen artean, andrazkoen kategoriaz guztietako karrerak eskatzen zirala, ezta?

Munduko Kopako probak oso oso garesti urtetan dira. Belgikan, ziklo-krosa kirol nazionala da: hemen futbolak daukan jarraipena dauka. Jentea hamabi filetan egoten da ziklo-krosa ikusten. Eta han be neskak, ez dagoz mutilen pare.

### Ze desbardintasun dago gizon eta andrazkoen sarietan?

Desbardintasun handia, nesken saria heren bat izaten da gitxi gorabehera. Espainiako Federazioaren tauletan, gizonetako irabazleak (elite eta 23 urte arte) 360 euroko saria dauka, andrazkoetan, irabazleari 144 euro jagoz. Ez hori bakarrik, mutiletan lehenengo hamarrak kobretan dabe, neskak lehenengo bostak bakarrik.

### Orain zabiz Igorreko Ziklo-krosagaz negoziatzen. Zelan doaz negoziatzen horiek?

Momentuz ez daukagu erantzunik. Udaletxeagaz eta Mankomunitateagaz egin dot berba, ze pentsetan dot hau ez dala kirol asuntua bakarrik. Ez dakit politikoa, soziala edo zer dan, baina uste dot danok daukagula erantzukizuna.

Federazioak diru publikoz horniduta dagoz eta androk geure zergak pagetan doguz, gizonen moduan. Ba bardin jaso gura dogu.

Lizentzia bardin pagetan dogu, materiala dendan be bai, izerdia bardin botaten dogu eta sufridu be bardin. Zergaitik ez daukagu duintasun hori, zergaitik ez daukagu urtekerak propioa eta leku zehatza? Zergaitik ez daukaguz sari bordinak?

Eta uste dot erakundeak dirala horri erantzun behar deusienak. Igorreko ziklo-krosa pisu handiko proba da, estatu mailan erreferentea eta ilusino handia egingo leuskit Igorrek pausu hori emotea. Eurekaz negoziatzen nago, neskena bakarrik izango dan urtekera, parrillak egitea...

Gizonetan kategoriak dagoz eta errespetetan dira, bakoak bere karrera dauka. Hori da androk eskatutako doguna. Orain arteko Espainiako Kopako lasterketetan 40 andra ibili gara, nik uste dot pisu apur bat badaukagula.

### Aurrendaria izango litzateke Igorre pausu hori emon ezker?

Leku batzuetan hasi dira sariak bordinen, Asturiasko ziklo-kros bik egingo dabe hori: abenduaren 28an, egingo dan Cangas-eko ziklo-krosak eta Ovedokoak.

### Hemen be lortuko doazue?

Gure protesta oinarritu da pankarta bat ipinten ziklo-kroseko urtekerak guztietan. Pankarta horretan bardintasuna eskatzen dogu eta pankarta horregaz argazki bat egiten dogu ziklista danak batera.

Gainera, sinadura bilketea be egiten gabiz. Eta idatzi bat be egin dogu ze aldaketa exijiduten doguzan azaltzen. Abenduan Espainiako Federazioak egiten dauan batzar orokorrean, aurkeztuko doguz gure proposamenok eta hor onartu ezker, hurrengo pausua araudian sartzea izango da.

Pentsetan dot lortuko dogula.

## ZIKLO-KROSA

# Naia Alzolak irabazi eta Manu Quintanillak bigarren egin dau Arbulon

### Erredakzioa

Ziklo-kros denporaldia aurrera doa eta Arratiako ziklistak hamar bat lasterketetan hartu dabe parte. "Batzuetan zapatu eta domeketan, bietan euki doguz lasterketa" esan deutso BEGITURI Naia Alzolak. Alzolak, zehazkiaren 15 eta 16an Arbulon eta Colindreseko lasterketetan garaipena lortu eban elite mailan. Bost eta hamargarren bitarteko postuak egin ditu orain arte beste lasterketetan.

Oso ondo dabizen beste arratiar batzuk, Manu Quintanilla, masters 40, eta Mikel Epalza, masters 30, dira. Arbulon zehazkiaren 15ean, bakoak bere kategorian bigarren eta hirugarren egin eban hurrengo hurrengo. Quintanilla podium-era be igo zan, Muskizen zehazkiaren 2an bigarren egin eban eta. Mikel Epalza lehenengo hamarren artean sartu da askotan helmugara.

Hilaren 9ko Elorriko ziklo-krosean, Naia Alzolak 5. egin eban, Manu Quintanillak 7. eta Mikel Epalzak 11.



**BOXPAL**  
618 59 81 71  
Pintura lanak  
Iturgintza  
Instalazio elektrikoak - aberiak  
lehoi eta ateen konponketa  
Pertsiana konponketa  
Igeltzerotza  
E-posta: boxpal@boxpal@yahoo.es

**LEHENENGO URTEKO KANTAN**  
15ko DEKUBIA  
AGUIRE LEHENDAKARIA  
basolo Emaldi  
ABOKATUA  
620.57.86.04  
aslerbasolo@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

**KIRRU • ILEAPANDEGIA**  
SOLARIUM  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 GORRE (Bizkaia)  
94 631 92 00

**IRU - DEKO FERRETERIA**  
● Alfonso Molina da dendaren arduradun barria  
● Saltoki hau Juan Bonal fundazioaren laguntzailea da  
Agirre Lehendakaria 9 • Igorre  
94 673 61 92 • irudeko@outlook.es

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Falg. Menditea, s/n. 48500 LEZMOA, Bizkaia  
Tel: 090 481 8300 / 090 200 717

**Pinturas Anatia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**sew**  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 GORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • seinmodu@hotmail.com



## ZINEA

## Igorreko zine aretoa digitalizatu egin da

### Erredakzioa

Lasarte Aretoa (Igorreko zine aretoa) teknologia digitalera pasatu da. Hil ala biziko eginbeharra zan, zinema analogikoaren desagertzea abenduaren 31rako aurreikusita dagoalako. Egun horretatik aurrera ez da zeluloidezko kopiarik bananduko, eta digitalizazioa burutu ez daben aretoak ateak zarratu beste erremediorik ez dabe izango. "Daborduko hasi dira desagertzen aldaketari aurre egin ezin izan deutesien aretoak, digitalizazioak eskatzen dauan inbersino ekonomikoa asumidu ezin izan dabenak, alegia" dino Janire Lopez Kultur Teknikariak.

Ez da hau, ordea, Igorreko Aretoren kasua. Digitalizaziorako



Proiektorea.

proiektorea aldatu, eta kable eta soinu sistemea egokitu egin behar izaten da eta Igorreko Udalak ahalegin eta inbersino ekonomiko handia egin behar izan dau horretarako. Baina Udalaren ustez, merezidu izan dau aldaketeak, izan be, zine aretoak herritarren babesu dauka: 2013an, krisi ekonomiko eta guzti, filmeko ikusle kopuruaren batzbestekoa 94 ikuslekoa izan zan.

Gainera, teknologia barriak abantailak be badakarz. Zeluloidezko pelikulak ibiliagaz gastau egiten ziran, eta gero eta txarrago ikusi. Eta kopia gitxi batzuk baino ez ziranez egoten, Igorrera uriburuatuko aretoetatik pasata gero helduten ziran. Orain pelikulea proiektorean kargetan dan artxibo digitala da. Soinu eta irudi kalidadea askoz hobea da, eta filmak goizago helduko dira Lasarte Aretora. Proiektzio gelaren erabilpena be errezagoa da, dana informatizaturik dagoalako. Eta hau ez da dana. Satelite bidezko teknologiarik esker, beste eduki batzuk be emon ahal izango dira hemendik aurrera Lasarte Aretoran zinema pantaila handian: partiduak, kontzertuak, opereak, eta abar. "Sistema digitala, errezagoa, ekonomikoagoa, ekologikoagoa eta kalidade hobegokoa da".

## IRAKURLE KLUBA

## Asier Serrano Bedian

### Erredakzioa

Asier Serrano idazle eta kantariak, *Abisalia* liburua komentauko dau irakurleak Bediaiko Irakule Klubean, hilaren 26an. Hile birik behin, irakurleak eta idazleak batzean dira Bediaiko liburutegian, Julen Gabiriaren eskutik, liburuaren bat komentetako.

Asier Serranok poesia, nobelean, narrazioak eta haur eta gazte literatura idatzi dau. Musika mundutik be ezaguna da Serrano.


Testu poetikoak osotuten dabe *Abisalia* (Txalaparta, 2014) puzzle baten modura narrazioa sortuz. *Abisalia* uri gorria da. Beste mundu bat. Istorioak personajetik personajera eta denporan saltoka, puntu desbardinatetik lotuten dira.

### Asier Serrano

Asier Serrano (Eibar, 1975). 1997an *Bada hiri gorri bat* argitaratu ebanetik, hainbat poema liburu argitaratu ditu: *Picassoren zaldia*, *Hiri gorritik* eta *Desterratuen piztiarioa*. *Hoteleko kontuak* narrazio

bilduma eta *Mari Basajaunaren eremuan* haurrentzako liburua be argitaratu ebazan 2001ean. Horrez gainera, eleberri bi argitaratu ditu: *Eskuetan mapak* (2007) eta *Erlojugilea* (2009).

Musika munduan be hainbat lan egindakoa da eibartarra. Lorelei taldeko abeslaria eta letragilea da eta bakarka *Ez esan inori*, *Hoteleko kantak* eta *Gerrari bai* diskoak atera ditu.



## ANTZERKIA

## Barrea eragiteko antzezlanak Igorreko Kultur Etxean

### Erredakzioa

Oihulari Klown taldekoen arabera, umorea da eguneroko arazoak gaindituteko sendagairik onena eta Igorreko Kultur Etxean umorearen aldeko apustua egin dabe zehazkiaren bigarren hamabostaldirako. Hilaren 22an, Oihulari Klown taldeak *Ezineman* ikuskizuna eskeinitu dau.

Igorreko Bardintasun Sailak antolatuta, Virginia Imazek zuzendutako eta berak egindako gidioa daukan *Ezineman* antzezlanagaz barre egiteko aukerea egongo da zehazkiaren 22an, arrastiko zortziretan, Lasarte Aretoran. Ikuskizun honek *Cabaret*, *Haizeak eraman zuena*, *Grease*, *Mary Poppins* eta *Catwoman* filmetako pertsonajeak ekarriko ditu oholtzara. Anduriña Zurutzak eta Amaia Arriaranek

emongo deutesee bizitza Puxika eta Katuska doktoerei. Doktoerek umorea eta musikea erabiliko dabez bizitzak ipinten deuteseezan oztupoai aurre egiteko.



## BERTSOLARITZEA

## Areatzako II. Errefrau Poteoa

### Erredakzioa

Areatzako II. Errefrau Poteoa antolatu dau Euskera Planak. Ekintza hau lehiaketa moduan planteetan da ondo pasatuz euskerea bultzatzeko eta sariak be egongo dira errefrau gehien asmatuten dauan taldearentzat. Hiru lagunek osotu behar dabez taldeak eta euren esaera zaharren jakintza eta irudimena erabili beharko dabe saria lortuteko. Areatzako tabernak kolaboratu dabe eta amaieran berakatz zopea dastatuteko aukerea egongo

da plazan.

Hilaren 29an, arrastiko 19:15ean, Eguzki tabernan ekingo deutesee Errefrau poteoari. Arkaitz Estiballes eta Fredi Paiak esaera zahar baten parodia egingo bertso bana botako dabe. Taldeak, ze esaera dabizen parodietan asmatu behar dabe. Antolatzaileen arabera, lehiaketa honen helburua, ume, gazte zein nagusiak, kantu eta errefrauen bidez, arrastipasa dibertigarri bategitea da.

Gaua ondo amaituteko kontzertua egongo da Gaztetxean.

## MUSIKEA

## Soul musikea diktadura garaian Run Together fanzinean

### Erredakzioa

Diktadura sasoiko soul musikearen inguruko artikulua bat dakar kalean dan Run Together fanzinean bere hirugarren zenbakian. Lemoako Pablo Rodriguezek egingen dauan fanzine honetan Judge

Dread reggae abeslaria edo Made In Bilbo Scooter & Lambretta Cluba eta Chiswick Records-en gainera artikulua topatu daiteke.

Bertan irakurri daitezke honako honeei egindako alkarrizketak: Ruben Lopez & The Diatones, reggae taldeari; Nuevo Orden Mundial, Madrileko punk-rock taldeari; Siroko ska, Gasteizkoari; DJ Sir Gorka of Mondra, Arrasateko DJ-ari; DJ Amunda Selektah, Irunekoari; DJ Oldies But Rudies, Madrilgo DJ bikoteari; Sustria Records, Nafarroa aldeko zigilu barria jamaikar musika eta euskal kultura tartekatzen dauana eta The little feet & the prenats, Gasteizen 90. hamarkadako Ska-Reggae taldeari.

## BERTSOLARITZEA

## Menika ezin izan zan sailkatu

### Erredakzioa

Imanol Uriak irabazi eban zehazkiaren 8an Zeanurin jokatu zan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako atzenengo kanporaketa. Bertan, Igor Menika Arantzazukoak kantau eban, baina ez eban lortu finalurrekoetarako sailkatzea. Finalurrekoetan egongo dan Aratiako bertsolari bakarra Arkaitz Estiballes izango da, Menika eta Iturriotz ez diralako sailkatu. Estiballes zuzenean sailkatu zan finalurrekoetarako Bizkaiko txapeladuna dalako eta bere txandea abenduaren 7an izango da, Amorebieta-Etxanoko Zelaieta zentroko frontoian.

Hirurehun lagunetik gora alkartu ziran Zeanuriko frontoian, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren bosgarren kanporaketeka ikusteko. Lehian arratiar bat eta sariak bananduten Eñaut Intxaurrea Bizkaiko Bertsolari Elkartearen zuzendariatzako kide zehazkiaren eta Bitoriano Larrazabal Zeanuriko zinegotzia.

### Finalurrekoak

Zeanurikoa izan zan atzenengo kanporaketa eta holan osotu da finalurrekoetan kantauko dabenen zerrenda. Beñat Ugartetxea, Oihana Bartra, Eneko Abasolo, Gorka Ostolaza eta Imanol Uriak saioetako irabazleak, puntuazioakaitik sailkatu diranak neurtuko dira. Honeek Joseba Artza, Xabat Gallettebeitia, Ibon Ajuriagojeasko, Ander Elortegi, Julen Erezuma eta Garikoitz Sarriugarte dira.

## JAIK

## Asterriako jaiak

### Irati Urien

"San Andres nieve en los pies" esaten dau gaztelarazko esakereak. Edurra egin edo ez, hurreratuten danarentzat berotan eta gustura egoteko jaiak prestatu dabez Zeanuriko Asterriakoak. Jan edana ez da faltauko, apustua eta jantzea be ez.

Hilaren 28an, 20:00etan jaien hasiera ofiziala izango da eta txistulariak ibiliko dira baseri artetik. Gaueko auzo-afaria prestatu dabe. 29an, 18:00etan herri kirolak egongo dira eta ostean probak; idi parek astoaren kontra. 20:00etan euskal erromeria Adolfo eta Unaigaz. 20:30ean odoloste jana auzotar eta inguratzen diranantz eta 21:30ean jantzaldia. Domekan osteria 12:30ean mezea egongo da eta ostean Zeanuriko Abesbatzaren kontzertua. 18:00etan amaierak emongo jakie jaiak.



## LEHIAKETEIA

# Luzetu Barik III. Igorreko Film Laburren Lehiaketea

### Erredakzioa

Igorreko Udalak, euskerazko film laburren ekoizpena sustatzeko asmoagaz, 2014 honetan, barriro ipini dau martxan Luzetu Barik Lehiaketea. Aurten, 3. edizioa izango da, eta lau sari mamitsu bananduko ditu: film labur onenarentzako 1000 euro; Arratiako egile onenarentzako 600 euro; 14 eta 25 urte bitartekoen gazteen kategorian 500 euro, eta umeenean (7 eta 14 urte bitartekoak) 200 euro. Sariok zeineri emon, profesionalak osotutako epaimahai batek ebatziko dau.

Lan guztiak euskeraz izan behar dira, eta minutu bat eta 15 minutu arteko iraupena euki behar dira. Gazte eta umeen saile-

tan telefonoagaz grabatutakoak be onartuko dira, holan, ekipo garestien beharizanik barik parte hartu ahal izango dabe, baina helduen lanak DVD formatuan aurkeztu behar dira derrigor. Film guztiak Igorreko Kultur Etxean aurkeztu behar dira abenduaren 12a baino lehen. Filmagaz batera, egilearen edo lantaldearen datuak; izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia, izango dituan fitxa bat aurkeztu behar dira, eta baita lanaren argazki bat be. Informazio gehiago gura izan ezker, oinarriak Igorreko Udalaren webgunean ([www.igorre.net](http://www.igorre.net)) eskegita dagoz "Albistek" sailean. Sari banaketaren data zehazteko dago, baina egun horretan lehiaketan parte hartu daben film guztiak ikusteko aukerea egongo da.



## ANTZERKIA

# Patxo Telleriaren Pankreas umorezko antzezlanaren Igorreko Lasarte Aretoan

### Erredakzioa

Zemendiaren 29an, zortziretan, Tartean Teatro konpainiak Patxo Telleriaren *Pankreas* "gaur egungo tragikomedia bertsoz paratua" taularatuko dau. Udagoieneko Ostera, Bizkaiko Kultur Zirkuituaren XV. Edizioa antolatu dau Euskaltzaleen Topaguneak, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesagaz. Zirkuitu horretan dago Igorre, eta Zertu Kultur Elkartea, Euskaltzaleen Topagunearen partaide da.

Udagoieneko Osterak euskerazko kultur produkzioa ekarten dau Bizkaiko antzokietara, euskaltzaleai aisialdian euskeraz gozatzeko aukerea eskeiniz. Aurten lehen aldiz, zirkuituan izango diran sortzaileak solasaldiak egongo dira. Holan, zemendiaren 27an, goizeko 10:00etan Patxo Telleria antzezlanaren egilea, Batxillergo ikasleak egongo da Igorren *Pankreas* antzezlanaren euren komentetan. Irati Urien eta Mateo Pagazaurtunduak gidatuko dabe berbaldia.

### Ezusteko gertaerak

Jokin Oregiren zuzendaritzapean, Joseba Apaolaza, Mikel Martinez eta Patxo Telleria bera dira kome-

dia honen protagonistak. Personek batek pankreas transplante bat behar dau bizirik irauteko eta bere lagun batek, hurrengo ur-

tean bere buruaz beste egiteko asmoa dauka herentziako gaisotasun bat ez pairatzeko. Orduan agertzen da hirugarren lagun bat, suizidari eskatuko deusana heriotzeagaz daukan hitzordua aurreratzeko, honen pankrea lagun gaixoari emon ahal izateko. Gau zoro baten, ezusteko gertaerak bata bestearen ondoren etorriko dira, fisika modernoaren axioma bateri men eginez: gertatu daiteken guztia gertatu egiten da nozoz.



Mikel Martinez, Joseba Apaolaza eta Patxo Telleria aktoreak.

## DUNBA

# Sasoiko elikagaiakaz pasta tailerra

2.014-2.015 ikasturtean, EA21 Programan landuko dogun gaia: gitxitu-berrerabili-birziklau da, eta GAP-Aktibatu+ Programearen barruan hondakinen kudeaketea.

### Dima-Ugarana ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Gai biok, konsumo arduratsueguz zerikusi handia izateaz gainera, guztiz alkar lotuta dagozala begibistakoa da, eta zelan ez, kudeaketa egokia egiten badogu horrek konsumo energetikoan aurreztea ekarriko dau. Hauxe da arrazoietako bat "sasoian sasoioak eta tokian tokioak" gure gaurko gaia arrazoiz beteteko. Izan be, gure herrietan elikagaien ekoizpena sustatzeagaz batera, elikagaion kalidadea eta kalidadezko konsumoaren inguruan ezagutza

bera be indartzen dogu, baita be, lan jardurea bera.

Hona hainbat arrazoi sasoian sasoioak eta tokian tokio elikagaiak konsumiduteko:

- Bertako elikagaiak konsumidutea onuragarria da bertako ekonomiantzat.
- Elikagaiak freskoagoak dira. Distantzia luzeak egin behar dabezan elikagaiak izozgailuetan asteak pasetako arriskua daukie-eta.
- Bertako elikagaiak sabore gozoagoa daukie. Heldutasun puntu egokian batzean dan elikagai batek sabore gehiago dauka, garraiatu behar dana

heldu orduko edo goizago batu behar da eta.

- Naturalagoak dira. Gure etxetik gertu biltzean diran elikagaiak konserbagarri eta gehigarri kimiko gitxiago izaten dabe.
- Bertako elikagaiak jateak negutegi efektua daukien gasen isurketea gitxitzen dau. Beste herrialdeetatik elikagaiak garraiatzeak CO<sub>2</sub> gasen isurtze maila izugarri handitzen dau.
- Sasoiko elikagaiak osasungarriagoak eta merkeagoak izan ohi dira.
- Elikagaien jatorria ezagutzen dogu.
- Elikagaien jatorriko prezioa aldaratzen daben monopolioak saihesten dira. Hau saihesteko ezin bestekoa da bertako ekoizle txikien

aldeko apustua egitea.

- Bertako ekoizleai elikagaiak erosi ingurumenaren eta ekonomiaren garapen jasagarria sustatzen da.

Gai honen garrantziaz jabetuta, aukera bikaina izan dogu eskolan sasoiko elikagaiakaz pasta desbardinak egiteko.

Tailerra landuten hasi baino lehen, sasoian sasoiko produktuen erakusketea eta azalpena euki genduan. Sasoi honetan gure ortu eta basoetan topatzen doguzan elikagai batzuk honeek dira: kalabazea, porrua, azelgak, erremolatxea, azea, azalorea, babak, gaztainak, intxaurrak, urrak...

Azalpen teorikoez gain, parte-



hartze zuzena izan dogu Dimako ikasleok ekintza dinamiko honetan. Bertako produktuak erabiliz pasta gozo-gozoa egin genduan, han ibili ginan danok eskuak orean sartuta.

Badakizue zelan egiten dan? Ba begira, gari uruna, olio, gatz, eta, gure kasuan, arrautzea nahastu. Orea ondo nahastuta eta prest dagoanean rodiloagaz zapaldu eta espageti forma edo tailarin forma emoten dauan makina batetik pasau.

Eskolako beste talde batzuk erremolatxea, porrua edo kalabazea erabili eben euren pastea egiteko.

Danok oso pozik hartu genduan parte tailer honetan eta gau haretan afaltzeko geuk egindako espageti gozoak euki genduzan.



Pasta tailerra euki eben Dimako ikasleak.



## AGENDEA

## ZEMENDIAK 17

## AREATZA

18:00etan, Frontenis Txapelketa. AKKBk antolatuta.

## LEMOA

19:00etan, "Jarduera fisikoa eta osasuna: egungo eta etorkizuneko errealitatea eta ekintza-lanketa" berbaldua. Jubiladuen Etxeko goiko aretoa.

## ZEMENDIAK 18

## AREATZA

19:00etan, *coaching* taileraren aurkezpena Maru Sarasola, "Coaching, del empoderamiento individual al empoderamiento colectivo". Emakumeen Foroko gelan.

## ZEMENDIAK 19

## AREATZA

19:00etan, Frontenis Txapelketa. AKKBk antolatuta.

## BEDIA

Ganguren Mendi Taldeak antolatuta, Ubide-Urkiola. Mobotegi (816 m.).

## LEMOA

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, "Atlas 14" proiektuaren eta argazki erakusketa Jubiladuen Etxeko goiko aretoa.

## ZEMENDIAK 20

## AREATZA

18:15ean, Abenduaren 18an BOS eta Koral alkarteak Euskaldunak emongo daben kontzerturako izen emotea. Udaletxeko 3. solairuan, AKKBren gelan. 19:00etan, AKKBk antolatuta, Jose Migel Agirregomezkortaren berbaldua "Areatzako etxebizitzak".

## IGORRE

Olabarri auzoan, kalejire Arratia Musika Eskolakoak.

19:00etan, Lida Emilse Paz Labioren berbaldua "Emakume indigenen aurkako indarkeriak Kolonbiako gatazkaren esparruan". Kultur Etxean.

## LEMOA

19:30ean, Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatuta, "Futbola eta hezkuntza" berbaldua. Jubiladuen Etxeko goiko aretoa. 19:30ean, CD Lemoaberri antolatuta, futbol partidua (neskak). Athletic Club vs CD Pauldarrak.

## ZEMENDIAK 21

## ARTEA

15:00etan, Arteko eskolan "Arteko Eskolan musika ere bai" jardunaldi zabalak. 18:45ean, Hala Dzipo kultur elkarteak *Euripean* umeentzako ikuskizuna ludotekan.

## IGORRE

19:00etan, Idoia Ruiz berbaldua "Después del sí quier... ezkontzaren ondorio ekonomikoak". Kultur Etxean.

## LEMOA

Kirol eguna eskolan. 16:30ean, Harrobik antolatuta, "bonbonera" futbol ekintza kiroldegian. 19:00etan, Ganzabalek antolatuta, *stretching* saioa. Jubiladuen Etxeko goiko aretoa. 20:30ean, Harrobik eta Esku Pilotak antolatuta, kopaua kiroldegian. 21:00etan, Esku Pilotakoak antolatuta, partiduak frontoian.

## ZEANURI

19:00etan, *Mariposas en el hierro* dokumentala.



## ZEMENDIAK 22

## AREATZA

08:00etan, urtekera. Mugarra (969 m.)-Artabagan (998 m.)-Leungane (1.009 m.). Laminok antolatuta.

## ARTEA

20:00etan, Luis Inuarizaga Abesbatza, Arratiako Musika Eskola eta Arteko eskolakoek kontzertua. Eleizan.

## IGORRE

10:00etan, Basogintza jardunaldiak Kultur Etxean.

20:00etan, Oihulari Klown-ek ezINEMAn.

21:00etan San Kristobaleko txokoan kantu afaria.

## LEMOA

17:00etan, Indarkeria sexistaren gaineko tailerra Gaztelekuan.

17:00etan, Kiran-ek antolatuta, Zumba maratona Elizondoko kulturguneko plazan.

## ZEMENDIAK 23

## ARRATIA

12:00etan Marba Morea Igorre eta Zeanuritik. 12:20ean Arantzazutik. 13:00etan Arteatik. 13:30ean, Areatzako plazara helduko da. Testu irakurketa, Zeanuriko andrazko jantza taldea, abestia eta kopaua.

## ARTEA

17:30ean, zine-foruma *El Cairo 678* Kultur Etxean.

## IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Rio 2*. 19:30ean, zinea *Torrente 5*. Lasarte Aretoa.

## LEMOA

08:00etan, Ganzabalek antolatuta, mendi urtekera. Lagran-Okina. GR-38. 13:00etan, Mendieta Herri Kirol Taldeak antolatuta, herri kirol erakustaldia Elizondon.

## Gorbeia Igorren erakusketa Kultur Etxean

Bizkaiko Foru Liburutegian Gorbeia Bilbon erakusketa arrakastatsuen ondoren, Gorbeia Igorren izeneko dago Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan zehazkiaren 17tik abenduaren 29ra arte. Bertan, Igorre eta Gorbeiarekin arteko hartu-emonari eta ehun urte baino gehiago daukiezen bertako kurutzaren gaineko materiala jasotzen da. Iñaki Garcia Uribe da erakusketa honen egilea. Garcia Uribe berak eta Juan Manuel Etxebarriak Gorbeiaz lotutako berbaldiak emongo ditue zehazkiaren 27 eta 28an hurrengo hurrengo.

Kantu eta kontu, inaugurazioa zehazkiaren 14an izan zan. Kantua Gontzal Mendibil eta kontua Garcia Uriberen eskutik. Erakusketa, panelak, era askotako gauzak erakusmahaietan, koadroak, argazki zahar eta modernoak, Gorbeia kurutzaren erreplikak bilduma bitxia, mendizaleen sasoi bateko materiala eta beste gauza asko.

## Gorbeia historia eta mitoa

Hilaren 27an, 19:30ean, Iñaki Garcia Uribe mendizale eta idazleak "Historias e historia de Gorbeia" berbaldua emongo dau Lasarte Aretoa. Hurrengo egunean, leku eta ordu berean, Juan Manuel Etxebarria etnohistoriagelari zehazkiaren "Gorbeia, mitoak eta euskera" titulupeko berbaldua emongo dau.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## MASAJEAK EMOTOKO OHATILA SALGAI

Masajeak emotoko ohatila saltzean dot, barri-barria, bitan bakarrik erabilakoa. Tolesgarria, besapean eroatekoa. Prezioa 100 euro. 619 661 841.

## AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 11 urte. 106.000 Km. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Inigo).

## UMEENTZAT AULKIA SALGAI

Bugaboo markako umeen sillea eta pianola funda bi saltzean dodaz. Interesdunak zagozenak 679 909 869 telefonora deitu.

## VENDING MAKINEA SALGAI

4 urte dituan vending makinea salgai. 279 produktu sartzeako kapazitatea dauka. Interesdunak 645 725 252 edo 606 771 708 telefonora deitu.

## DANERIK

## TRASTELEKU BILA

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

## PISUA ALOKATZEN DA

Pisua alokairuan Lemoan. Logela bi, komun bi, sala handia, sukaldea, balkoia eta garajea. Etxebizitza barria, zonalde onean kokatua. 656 771 662.

## IKASTAROA

Buztinagaz gozatu gura badozu, ointxe dozu aukera. Helduentzako keramika ikastaroa Igorren, eguazteneko ordu bi, 18:00etatik 20:00etara. Animauta bazagoz, deitu 615 731 182 telefonora.

## EROSI

## TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE

Trikitixa esku soinu erosioko neuke. 653 716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

1 Topaguneak Udagoieneko osterara dala eta emondako bi sarrera *Pankreas* antzezlanerako.

Iker Zamakona (Areatza)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Torrente 5* filma ikusteko.

Mari Eli Olabari (Artea)  
Jon Bengoetxea (Igorre)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 12

urte eta


ehundaka

lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Bastoia. 2.- Bokala. Mingain.
- 3.- Musika nota. Lantanoa. Bokala.
- 4.- Biharko ez, hurrengorako.
- 5.- Bokala. Amildegia. 6.- Iparraldean, emongo. 7.- Pluraleraz, masa. Begiratu.
- 8.- Gu handik hona... Bokala.
- 9.- Seinalea, zeinua.

### GOITIK BEHERA

- 1.- Eskubara. Eguneroko janari.
- 2.- Mila erromatar. Errepetiduta, kontuz. Pluraleraz, modua.
- 3.- Amerizioa. Kargau. 4.- Irritu, kilikatsu. 5.- Iseka, burla. Zirkonioa.
- 6.- Berrogeta hamar erromatar.
- Agur. Bokala. 7.- Andrazkoen izena. Bizikaia, otartekoa.




Topau Ibaizabal ibaiaren arroako zazpi mendiren izenak.

A	P	A	L	C	O	R	K	O	N
Z	O	R	E	M	A	N	T	E	A
O	D	N	O	M	E	T	R	U	L
A	S	E	K	A	R	O	U	N	E
R	G	I	L	I	F	A	Z	E	I
R	O	N	Z	E	S	P	U	R	D
I	Z	T	A	L	D	A	M	I	N
Z	O	X	O	T	E	N	A	R	E
U	K	O	A	G	E	I	B	U	M
R	I	R	I	D	O	L	I	R	A
I	S	T	A	D	N	O	K	E	L
G	R	A	N	O	K	A	I	B	L
A	H	A	R	E	O	L	K	R	E
N	M	U	L	A	C	E	N	E	T
E	Z	T	E	L	A	M	A	R	L

# AKI MI KO

I  
m  
a  
n  
O  
l  
a  
t  
u



**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3 - 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Fax: 609-79-40-34

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2.  
48110 Igorre (Bizkaia) - Tel.: 94 673 44 25

**NAIARA Hertz Klinika**  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igore  
94 631 52 26

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza - Tfnoa 649 86 95 36

**Los Chopos**  
neurri egindako armairuak  
Arda, Los Chopos, 33 (Nigar) Tel.: 94 430 40 94  
**Esposizinoa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ  
Balneario: A1, A, B77, 8  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnoa: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@vodafone.net

**AKITEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONTRATUEN  
ONDASUN HIGEEZINEN  
ASIGURUTAN  
Bilbo Arana, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Fax: 94 673 94 41 - 48140 IGORRE

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 - Telefonoa: 94 673 60 14 - IGORRE-BIZKAIA

**axular**  
kultur obrak  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.l.**  
CONSTRUCCIONES  
LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK  
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: cbras@construccioneseekin.com

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)  
Telefona: 94 631 36 31 Faxa: 94 673 70 83  
e-posta: vnozalu@eskola.net



## AITZOL BELASKO ERREKAGORRI

**"Ni lotsatia naz eta norberaren burua telebisinoan ikustea kosta egiten da"**

Etb 1 Gu ta Gutarrak programa barria emitiduten dabil. Bertako partaide dogu Aitzol Belasko lemoaztar saltseroa. *Reality* hasita egoala sartu bazan be arazo barik egin dau bertan bere lekutxo. Barre zein hasarre, argi itxi dau egurra emoten badakiala eta emongo dauala.

**Irati Urien**

**Zer egiten dau Aitzol Belaskok Gu ta Gutarrak saioan?**

Esperientzia barri bat biziteko aurkeztu nintzan, *reality* bat barrutik zelan doan ikusteko. Ez naz joan neska bila ez holako ezertan be ez. Orain arte ez dot holako esperientziarik bizi izan, aukera hau suertau jata eta aprobetxau egin dot.

**Zein da programearen helburua?**

Kuadrila jatorrena topau gura dabe. Sei personako kuadrila bi gagoz, eta kuadrila bien arteko pikea egiten da. Bata jatorra da, bestea satorra. Adibidez sokatiran bi tiraldi irabazten dauan taldea jatorra bihurtuten da. Irabazle horreek Morgara doaz orduan astegoiena pasetan.

**Jentea eliminetan doa...**

Bai. Danon artetik jatorrena nor dan aukeratuten dogu. Hori ezin da nominau, besteen artean nominetan da etxera bueltatuko dana.

**Programea hasita egoala sartu zinan. Zelangoa izan zan sartukerea?**

Bai, hirugarren astegoienean. Ustekabean harrapatu ninduan danak, goizean *casting*-a egin eta arrastian sartu nintzan. *Casting*-ean denpora librean zer egiten dozun eta holango gauzak galdetuten dabez. Ia programea ikusten dozun be bai. Nik ordura arte ez nebala ikusten baina *reality* bat egoala enterau eta sartu gura nebala esan neban. "Txurru"ganako aurrerexia neukan eta *casting*-ean aitatu egin neban. Horrek be bere eragina euki eban.

Gero lehenengo egunean aurkezteak "Txurru, hemen dator Bizkaitar bat zure kontra gauzak esan dauzana...".

**Zelan hartu zaitue? Ondo integratu zara?**

Irantzugaz pikea euki neban baina hori normala be bada, danak ez zara ondo konponduko! Txokeak eukiten dozuz, baina momentuko gauzea izaten da. Esperientzia ona orain arte, gustura sentiduten naz.

**Badakigu El Conquistador Lehiaketarako casting-era be joanda zagozala...**

Bai, birritan egin dot. Atzena "Antuan" sartu ebenean. Esperientzia fisiko zein mental bat bizi gure neban. Gainera denporea zan arratiar batek ez ebal parte hartuten eta horregaitik be animau nintzan. Orain, Gu ta Gutarrak-en egon ostean, sartuteko aukera handiagoa eukiko neukela esan deuste. Ikusiko da.

**Bardin deustu Patagonia zein Miramon, sano formatu desbardinak izanda be esperientzia bila zelan edo halan?**

Bardin bardin... Ointxe badakit zer dagoan kameran aurrean. Baina bai, ez jata ardura atzen baten zeuk gura dozulako zoaz eta, zelango esperientzia dan ezetu gura dozulako. Sano desbardinak dira duda barik, ez daukie zerikusirik. Patagonian zure gorputza neurtuten dozu, Gu ta Gutarrak-en ez. Baina hau be beste leku bat da zeure burua proban ipinteko.

**Zein da Gu ta Gutarrak-en dinamikea?**

Aste bete lehenago grabetan da.

**Ustekabean harrapatu ninduan danak, goizean casting-a egin eta arrastian sartu nintzan**



Eguen eta bariku guztietan Miramonera joaten gara. Eguenetan astelehenekoa eta martitzenekoa grabetan dozuz, barikuetan eguazten eta egueneakoa. Gero aste goien birik behin Morgara, bariku arrastitik domeka arrastira arte. Han ez daukaguz kamarak 24 orduan gugaz.

**Ikusten dozu programea? Zelan ikusten dozu zeure burua?**

Bai. Ni berez lotsatia naz eta norberaren burua telebisinoan ikustea kosta egiten da. Baina holan zer egiten dozun txarto, zer ondo... konturatuten zara. Orain dala aste pare bat takoiakaz ibili behar izan nintzan, sano barregarria egin jatan ikustea. Bestela nazen modukoa naz. Barre egin behar danean barre egiten dot, eta kontestazino txar bat daukadanean momentuagaitik izaten da, nahiz eta gero parkamena eskatu.

**Badakizu zure "Egurre!" famotsotuten dabilela?**

Bai. Barria izan naz, orduan txori hilak lez barik, kaina apur bat emonez sartu gura izan dot. Platoan musikea ipinten dauan Tirapuk be badauka honezkero "egurre, egurre!" dinoan audioa, nik berba egin ezker, zein adibidez takoiain gainean ibili nintzanean, ipini egiten deuste.

**Euskal Herrian ezaguna izate-****ko prest?**

Arratian ezaguna naz betikoa nazelako, eta danok ezetuten garalako. Baina bai, hemetik kanpora programea ikusten dauanak behintzat ezetuko nau eta izan leiteke baten bat argazki eske etortea be. Ez dot ezelango arazorik eukiko jentetaz erlazionetako.

**Zuretzako zer behar da kuadrila bat jatorra izan daiten?**

Giro ona egon behar da, guzur eta faltuikeriarik bakoa. Alaitasun apur bat, ahal dala umorez egotea, *feeling* hori egotea. Apur bat danerik baina faltu eta guzurteru barik.

**Nogaz lortu dozu feeling ona programa barruan?**

Oier Sopolako jantzariagaz. Furgoan batera joaten gara, batera gagoz... nire botoa jatorrenari berak hartu dau. Igual berak gero beste gauza bat esaten dau baina nik bat aukeratu behar baneu, bera izango litzateke.

**Noiz arte jarraituko zaitugu ikusten?**

Ez dakit. Nik amaierara arte egon eta zer dagoan ikusi gura dot. Badakit gatxa izango dana barria nazalako eta orain arte ikusi dan moduan barriari emoten deustie nominauen boto errez kaleratuteko. Nigaz be bardina pasauko da seguruenik. Momentura arte ez dakizu zer pasauko dan. Halan da be oraindik zati baterako barruan nagoala esan neike.

**Kirru ileapaindegia**  
Roberto eta Rosana

**Erdu eta gozatu!**

Sabino Arana 38 behea · Igorre · 94 631 92 00



**Hilaren 20an zabalduko dogu.**

**Pasau zaituz Kirrutik eta galdetu noz egingo dogun berrinaugurazinoa!!**

**20 urte zuon bizimoduari kolorea emoten.**